

99

4 euro • 2005eko EKAINA euskal heziketarako aldizkaria

hh hik hasi

GAIA: HIZKUNTZ EREDUAK ETA EUS-
KALDUNTZEA • ELKARRIZKETA:
XABIER GARAGORRI • ESPERIENTZIA:
LAN KOOPERATIBOA • HAUR ETORKINAK
INTEGRATZEKO HARRERA GELA



ELKARRIZKETA

Eskolaldirako euskal
curriculum
denon eskura

Lotara joan aurreko ipuinak

Haurren heziketarako osagarri

- oinarri teorikoak
- 21 ipuin
- 21 orientabide pedagogiko

AURKIBIDEA

Ohitura onak ikasteko oinarri teorikoak

Bí printzeak. Anaia-arreben arteko jelsokortasuna eta lehia
Hau da aslea, hau! Gaizki lo egiten duen haurra eta beldurra duena
Bai otordu berezia! Gaizki jaten duen haurra
Andoni eta bere Icherigusuak. Seme/alaba bakarra
Maria eta Mahaxi sorgina. Anai-arreba txikiak dituen haurra
Ipuinetako Aztia. Gaizki lo egiten duen haurra eta beldurra duena
Bizarturdin dukearen gaitelua. Esana egiten ez duen haurra
Abenturazale amorratua. Haur ausartegia
Bizitzaren haziak. Maite dugun norbaiten galera
Goroziren oinordetza. Maite dugun norbaiten galera
Barrikadaren taldea. Gurasoak banantzea
Ander Gandorduna eta printzesa Tuntuna. Konplexuak dituen haurra
Eneko eta hamsterrak. Haur adoptatua
Mikaren altxorra. Haur kleptomanoa
Gorritxo nire adiskidea. Haur hiperaktiboa
Dena Atzekoz Aurrera Zegoen Herrialdea. Haur gezurtia
Ipuina puskatu zuen musikaria. Haur bihurria, oidakorra eta zakarra
Hiri miragarria. Haur bokartia
Iartax planetara bidaiaria. Haur tolela
Alizio dut izena. Haur elbarria
Beti turrustan eta Bakailao buztan. Enuresia

Orientabide pedagogikoenak



elkar

Lotara joan aurreko ipuinak

Txikiei hazten
laguntzeko kontakizunak

Eduard Estivill
Montse Doménech





gaia

HIZKUNTZ EREDUAK

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 16 uteko gazteen euskara mailari buruzko datuak eman ditu ezagutzera. Azken urteotan hizpide izan den hizkuntz ereduak ez du helburua lortzen. Beraz, ereduaren sistema aldatu beharra dago. Hala uste dute hezkuntzako eragileek.



elkarrizketa

XABIER GARAGORRI

Eskolaldirako euskal curriculumaren egitasmoaren zuzendaritza eta diseinu taldeko kidea, Ikastolen Elkartearen partaidea eta EHUKO irakasle da. Abian den euskal curriculumaz aritu gara.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

HIZKUNTZ EREDUAK ETA EUSKALDUNTZEA

16 elkarrizketa

XABIER GARAGORRI

24 esperientzia

Ikasleak herriari begira

Oñatierari buruzko jardunaldiak Elkar Hezi ikastetxeko ikasleen eskutik

26 esperientzia

Lan kooperatiboa

Arrasateko BHI

29 kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

Haur etorkinak integratzeko harrera gela

Nekane Garmendia

33 berriak

40 Muga guztien gainetik... euskaraz!

Elortzibarko ikastola proiektua

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solaina. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408

Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Airhoa Azpiroz Erredakzioa: Joxe Mari Auzendi, Ixiar Eizagintze Erredakzio batzordea: Mikel Estorika, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Apalategi, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbatua, Felix Basurko Aines Dufau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Iontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAMGRAF!k Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Eskolaldirako euskal curriculumaren aurkezpena. Anjeles Iztueta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua eta proposamenaren zuzendaritza taldea: Pedro Mari Legarreta, Lore Erriondo, Xabier Garagorri eta Aitor Bilbao (Hik Hasi). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2005-V-20). Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz baliatzen dira. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiek.

hik hasik

zure parte-hartzea

ezinbestekoa du
harpide zaitez!

40 euro urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

www.hikhasi.com

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena.....1. Deitura.....

2. DeituraTel:.....

HelbideaPosta Kodea.....

Herria.....Herrialdea.....

Ikastetxea.....Herria.....

IFZ-NAN

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA
SARIAK
(BEZ barne)

40 euro

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59
Aguila eraikina 1. solairua
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 14 08

Faxa: 943/ 37 21 54



editoriala ekaina

Anjeles Iztueta, lau urtez EAEko Hezkuntza sailburu



Laburbilduz, zera esan liteke: Euskal Herriak ez duela bere Hezkuntza Sistemarik, baina bere eskola propioa garatzen urratsak eman dituela, eta bertako administrazioek hortan sinesten badute urrats handiak eman daitezkeela.

Anjeles Iztuetaren legealdia amaitzera doa. EAEko Hezkuntza Sailburutza hartu zuela lau urte igaro dira. Epe laburra izanda ere, bada baloratzeko nahikoa gai.

Anjeles Iztuetak lau urte horietan kritika ugari jaso ditu. Hezkuntza eragileen kritikak izan dira gehienak. Eta eragile horiek halako jarrera izateko, arrazoiak izango zituztela dudarik ez dago.

Dena den, bere lana ebaluatzeko orduan, guk ondorengo bi premisak hartu ditugu kontuan: 1) egindakoa aitortzea; 2) herri ikuspegitik aztertzea.

Hasiera haietan, bazirudien Anjeles Iztuetak sinesten zuela EAEk bazituela nahiko hezkuntza eskuduntza eta Euskal Herriko Hezkuntza Sistemaz hitz egiten zuen etengabe, ideia hori jendar-tean txertatzen joan asmoz. Denboraz, estatuko edozein lege organikok EAEko hezkuntza erabat baldintzatzen duela ohartu da. Hala ere, ez da besoak gurutzatuta geratu; estatutuaren eskuduntzen ideia behin eta berriz aldarrikatu du, eus-

kal herritarroei geure hezkuntza izatea dagokigula adieraziz.

Ildo horretan ikusi dugu Aznarren gobernuak ezarritako LOU edo Unibertsitate legearen aurrean Euskal Unibertsitate Legea egitean; LOCE edo Kalitate legea arbuizatzean; etorkinak eskolatzeko orduan eman beharreko tratamenduan, estatuko etorkinak beste etorkinen parean jartzean eta abar.

Europar egindako biltzarretan ere, Eskualdeen edota Herrien hezkuntza eskubideak defendatzen ikusi dugu. Eta hemen, Europaren dimentsioarekin batera, Euskal Herriko dimentsioa bultzatzen ahalegintzen ari da, euskal curriculumaren garapena babestuz eta EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko eragileen elkarlana sustatuz.

Herri ikuspegia izan du bitartekoak jarri eta euskaldundu ez diren irakasleekiko. Eta baita gaur egungo hizkuntz ereduaren porrota argitaratzean ere; hau da, 16 urteko EAEko ikasleek lortzen duten euskara maila erakustean.

Hasieran esan bezala, Iztuetaren lanak kritika ugari jaso ditu. Horien artean 0-3 urtekoen eskolatzeko prozesua izan da kritikatuena. Nekazal giroko herri txiki-koek, kritika eta guzti, ahalegina asko eskertu dute, baina eskola publikoetakoek erabateko desadostasuna agertu dute.

Laburbilduz, zera esan liteke: Euskal Herriak ez duela bere Hezkuntza Sistemarik, baina bere eskola propioa garatzen urratsak eman dituela, eta bertako administrazioek horretan sinesten badute, urrats handiak eman daitezkeela ikusten da. Bestalde, administrazioen jokoa zentralizatua aldatu egin behar da, hezkuntza demokratizatu egin behar da, eskola proiektuei eta eskola komunitateari erabakietan protagonismoa emanez.

Bukatzeko, eta legealdiko lau urteak aztertuta, Anjeles Iztueta EAEko Hezkuntza sailburuak Euskal Herria herri gisa kontuan hartu duela esan liteke. Eta gainera, ondorengo sailburuarentzat bidea ezarri duela esatera ausartuko ginateke.

kronika

Francoren garaian ikastola klandestinoetan lanean aritu ziren andereñoek ez zuten Gizarte Segurantzaren kotizatu, eta orain arazoak dituzte erretiroa kobratzeko. 2003. urtean Eusko Jaurlaritzak kalteordaina eman zien 1968. urtera arte egindako lanagatik, baina geroztik sartu zirenek ez dute ezer kobratu oraindik.

EAJk Estatu espainiarreko parlamentuan lege proposamena aurkeztu du emakume horiek erretiro pentsio duina izan dezaten.

Lan egindako urte guztiak kotizatzerik izan ez zuten andereñoak 130 inguru izan daitezke. Dena dela, kopuru zehatza ezin daiteke jakin ziur. Emilio Olabarria EAJko Madrilgo parlamentariak azaldutakoaren arabera, lege proposamenak Estatu espainiarreko gobernuaren kontuetan ez du eragin handirik izango.

Ekimenak balio ekonomikoa baino gehiago balio sinbolikoa duela azpimarratu zuen, urteetan zehar baldintza txarretan lanean jardun ziren eta ekarpen itzela egin zuten emakumeei euren lana duintasunez errekonozitzea.



Seaska berriz mobilizazioetan murrizketak salatuzeko

Ikasturte hasieran bezala, bukaeran ere mobilizazioetan murgildurik dabilta Seaskako partaideak. Datoren ikasturterako ikasle kopuruak gora egin badu ere, ordu kopuruekin ez da gauza bera gertatu. Frantziako Hezkuntza Ministerioak murrizketekin darrari, eta horrek arriskuan jartzen du murgiltze eredua.

Oro har, Seaskak 69 ikasle gehiago ukanen ditu 2005-06 ikasturtean, baina 20 ordu kenduko dizkio Frantziako Hezkuntza Ministerioak. Azken bi urteetan 54 ikasle gehiago izan dira Lehen Mailan; haatik, irakasle postu gehiagorik ez da sortu. Ondorioz, legeak dioena baino ikasle gehiago pilatzen dira gelatan. Legearen arabera, gehienez 28 ikasle beharko lirakeke gela batean, eta 6. urtekoen kasuan 24. Kanboko kole-

gioan 28 eta 29 ikasleko bi gela dituzte, eta Ziburuko eskolan 29 eta 30 ikasleko bi gela bosgarren urtekoekin. Beraz, ez da legeak eskatzen duena betetzen eta beste gela bat irekitzen. Seaskak apirilaren erdialdera igorri zion gutun bat Bordelako errektoreari hitzordua eskatuz, baina oraindik ez du erantzunik jaso.

Egunerokotasun horrek murgiltze eredua kalitatean arriskuan jartzen duela adierazi dute Seaskako arduradunek. Zeren ikastoletan sartzen diren ikasle gehienak frantses elebakarrak dira, eta horregatik da garrantzitsua gelatako ikasle kopurua mugatzea eta ikasketa prozesua ahalik eta ondoen garatzea.

Sortu berri den EEP Euskararen Erakunde Publikoarengandik ere ez dute deus jaso oraindik. Frantziako Hezkuntza Ministerioa, Kontseilu Nagusia eta Akitania dira bertako partaide. Max Brisson EEPko lehendakariak behin baino gehiagotan azpimarratu du hezkuntzaren lehentasuna, baina ekintzak ez dira ikusten. Borondatea ba omen dute, baina ahalik ez. Bitartekaritza lana egitera mugatzen dira, baina fruiturik eman gabe.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako ikastoletako arduradunek, gurasoek eta irakaslek mobilizazioak iragarri dituzte baliabideen murrizketa salatuzeko.

Heziketan guztia da epe luzera.

Isabel Gonzalez



Eskola publikoan gehi-ago inbertitzeko eskatzen dute Nafarroan eta EAEn

Hego Euskal Herriko hezkuntza publikoko eragileek dagokien administrazioei eskaera garbia egin diete: hezkuntza publikoaren aldeko apustua egiteko eta gehiago inbertitzeko.

Nafarroako Hezkuntza Departamentuko Irakasleen Batzordeak -AFAPNA, ANPE, CCOO, CSIF, ELA, EILASK eta UGT- galdeketa bat egin du 260 ikastetxetan zein gabezia dituzten ikus-teko, eta ondorioa "penagarria" da. Azpiegiturak eta instalazioak egoera txarrean daude, irakasleen ezegonkortasuna handia da, euskarazko eskaerari ez zaio erantzuten, landa eskolak baztertuta daude, ziurtasun eta higie-neurriak ez dira egokiak eta abar. Sortzen-Ikasbatuaz eta Herrikoa Federazioak ere kalitatezko eskola publikoa

eskatu dute karriketara irtenda. Guztiek salatu dute Nafarroako Gobernua-ren planifikaziorik eza eta aurrekontuak gutxitzeko hartutako erabakia.

EAEko Irakaskuntza Publikoko Mahaiko ordezkariak -EHIGE, Sortzen-Ikasbatuaz, CCOO, ELA, EILAS, UGT, Sarean, BIHE eta Haur Eskolen Koordinadora- Nafarroan bezalako galdeketa prestatzen ari direla adierazi dute. Oro har, Nafarroako emaitzek EAerako ere balioko dutela iragarri dute.

Europako Irakaskuntzaren Astea aprobetxatuz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak azken lau urtetan aurrera eramandako jarduna kritikatu du-te, besteak beste: planifikaziorik eza, aurrekontu murrizketa, ikastetxeetako zuzendaritzak ez babestea, guraso elkar-teak indartzeko interesik eza eta irakasleen prestakuntzako hutsuneak. Beraien ustez, Hezkuntza Sailak ez du inolako ahaleginik egin eskola publikoaren irudia indartzeko eta berak jarritako lanildoak ere ez ditu bete. Hurrengo legealdian egongo diren ordezkari-iei elkarlanean aritzea proposatu die-te, eta irakaskuntza publikoari behar dituen baliabideak eskaintzeko eskatu.


LAB sindikatuak ez du parte hartu ez EAEko ez Nafarroako mahaian. Nahiz eta edukiakin ados egon, sindikatu horren iritzi-z, foro bakarra beharko litzate-ke, "euskal hezkuntza sistemaren lege orokorra lortzea baita xedea".

Lanbide Heziketa da euskarazko eskaintza gutxien duen irakaskuntza arloa. Horregatik heldu diote ikastolek hutsune hori betetzeari. Bizkaiko eta Gipuzkoako zazpi ikastolek (Bilbokoa 2007-08rako) 22 titulazio eskainiko dituzte euskaraz helburu bikoitzarekin: batetik, Lanbide Heziketaren alorra euskalduntzea, eta bestetik, ekoizpen sarean gizarteari ekarpena egitea. Horretarako, bi bide jorratu dituzte: kasu batzuetan zentro berriak sortzeko ikastolek euren artean sortu dituzte taldeak; eta beste kasu batzuetan ikastolek lanbide eskola arrakastatsuekin elkartu eta entitate berriak sortu dituzte.

Koldo Tellitu Partaideko lehendakariak aditzera eman duenez, "ikastolak sartzen diren alorrak euskaldunduz joan dira. Horren adibide ditugu eskola mundua eta Batxilergoa, eta Lanbide Heziketak joera bera izango duela uste dugu". Dagoen euskarazko eskaintzaren inguruko informazioa ematea oso garrantzitsutzat jo dute Bizkaiko 37 udalerrik, eta Batxilergoko eta Lanbide Heziketako euskarazko ereduak bultzatzeko kanpaina egin dute Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera.

7.200 gazteri gutun bana bidali diete liburuxka batekin eta bertan euskaraz non-zer ikaste dezaketen azaltzen da. Orain lau urte 42.191 ikaslek egin zituzten ikasketak euskaraz, eta aurten 37.413k. Jaitsiera horren arrazoi nagusia informazio falta ei da.

Hizkuntz ereduen porrota frogatu da



Hizkuntz politika aldatu beharra dago

Euskararen normal-kuntzan egiteko handia eman zitzaion eskolari. Haurrak, gazteak, etorkizuneko belaunaldia eskolan euskaldunduko zela sinesten zen bete-betean. Baina ez da berrama segurua izan. Derrigorrezko Hezkuntza bukatzen duten 16 urteko gazteak ez dute lasai gelditzeko moduko euskara mailarik lortzen, ez EAEan, ez Nafarroan eta ez Iparraldean. Denok susmatzen genuen, denok genekien, baina neurketa bat egiteak eta datuak edukitzeak beste dimentsio bat eman dio arazoari. Kontzientzia hartzeko balio izateaz gain, balio beza aldatzeko egiten hasteko eta emaitzak aldatzea lort-

EAEn hizkuntz ereduaren politikak ez du helburua lortzeko emaitzarik eman, hau da, 16 urteko gazteak ez dituzte bi hizkuntza ofizialak menperatzen. Iazko azaroan eta abenduan DBH 4. mailako 1.191 ikasleri (B ereduko 447 eta Dko 744) ALTE (Association of Language Testers in Europe) elkartearen B2 azterketa egin zitzaion. B ereduko %33k soilik gaitzitu zuen; eta D ereduko %68k. Horrek esan nahi du B ereduko bi herenek ez dutela euskara menperatzen, eta D ereduko heren batek ere ez.

Ebaluazioa egin aurretik, B2 mailako proba (ingeleseko First Certificate azterketaren parekoa da, EGA baino baxuagoa) hiru ikastetxetan egin zen, haietako bi A eredukoak, eta eredu horretako ikasle bakar batek ere ez zuen gaitzitu.

Memento honetan DBHko lau mailatan 20.300 ikasle daude A ereduan ikasten; beraz, horietako inork ez luke gaitzitu B2 azterketa. B ereduan 16.750 ikasle daude eta horietako 11.270ek (%67,4) ere ez luke gaitzitu. D eredukoak dagokienez, 32.950 ikasletik 10.540 (%31,99) gaitzitu lirateke azterketa gaitzitu gabe.

Azterketan bost trebetasun neurtu dira: irakurmena, idazmena, entzumen, mintzamina eta hizkuntza ezagutza.

Datu horiek ikusita, garbi dago 1983. urtean dekretuz ezarri zen hizkuntz ereduaren sistemak gaur egun ez duela balio. Garai hartako egoera eta ezaugarriak kontuan hartuta diseinatu zen sistema, baina egoera aldatu egin da, eta sistemak ere aldatzeko premia du.

Gauza bera gertatzen da Nafarroan. 1986an Euskararen Legea ezarri ondoren, EAEko hizkuntz ereduaren sistema

bera ezarri zen, baina G eredu gehituta (dena gaztelaniaz). Horrekin batera, ereduak eskaintzeko irizpideak jarri ziren: administrazioak, berez, gurasoek eskatzen dutena eskaini behar du. Errealitatean, ordea, ez da halakorik gertatzen.

Azterketei dagokienez, Nafarroako Gobernua kalitatearen inguruko azterketak egiten hasi zen ikastetxe publikoetan duela lau urte inguru, baina hizkuntza gaitasunen ingurukorik ez da egin oraindik.

Iparraldean gauza bera. Akademia Ikuskaritzak halako proba bat egin zuten ikastetxe publikoetako 11 urteko ikasleei duela hiru zpalau urte, baina besterik ez. Eredu elebidunetan ikasitako askok AEKra jotzen du eskolatik irten ostean. Eskolan lortzen duten maila ez dela aski frogatzen du horrek.



Seaskak bere kabuz egiten du azterketa. Makilakixki izeneko ebaluaketa sistema baliatzen dute. Euskaltzaindiaren oniritzia duen proba da ikasleen trebetasuna neurtzeko ebaluaketa hori.



G

EAEko datuekin batera, balorazioak eta iritziak

Euskara mailaren ebaluazioa



Iturria: ISEI, Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

B2 maila gainditzen duten ikasleek honako hau egin dezakete:

Mintzamena:

- Inguruko gaiet buruzko deskripzio argiak egin zenbait aukera kontuan izanda, horien abantailak eta eragozpenak azaldu.

- Naturaltasunez eta jariootasunez parte hartu elkarrizketetan; hots, arazorik gabeko komunikazioa aurrera eramanez.

- Testuinguru ezaguneko eztabaidetan parte hartu bere iritziak eta ikuspuntua emanez.

Hizkuntza ezagutza:

- Gai orokorrei eta inguruko buruzko hiztegi zabala eduki.

- Zalantza lexikoak izan arren hitzak errepikatzea saihesten saiatu.

- Dituen akats gramatikalek ez diote komunikazioa eragozten, gutxi eta ez-sistemati-koak baitira.

- Kohesio eta koherentzia egokia du eta idazteko arauak errespetatzen ditu (gramatika, ortografian eta abar).

Idazmena:

- Bere interesekin lotutako gai askori buruzko testuak idatzi.

- Idazlan edo txostenak idatzi informazioa azalduz edo ikuspuntu zehatz baten alde edo kontrako argudioak azalduz.

- Zenbait eginkizun edo esperientzia nabarmen diren gutunak idatzi.

Entzumena:

- Hitzaldi luzeak ulertu eta eztabaida konplexuen ildoak jarraitu, betiere gaia ezaguna izanik.

- Komunikabideetako albisteak, saioak edo eta euskara batua erabiltzen duten filmak jarraitu.

Irakurmena:

- Egungo artikuluei buruzko arazoak zein txostenak ulertu.

- Egileen jarrera edo iritzi anitzak ulertu.

- Literatura garaikideko prosan idatzizko testuak ulertu.

ISEI-IVEIk egindako ebaluazioaren datuak hor daude, ezagutu dira, eta iritzi andana entzun da. Badirudi inor gutxi harritu dela emaitzekin. Hala dio Lontxo Oihartzabal EAEko Eskola Kontseiluko lehendakariak: "Datuek ez naute batere harritu. Lehenengo aldiz egin da azterketa, eta horrek bere balioa du. Orain badakigu Europan erabiltzen den tresna erabiliz gure ikasleek duten euskara maila zein den. Horrek sekulako balioa dauka".

ELA sindikatuaren iritziak, "txostenaren datuak egungo hizkuntza ereduaren heriotza agiria dira". EILASEk dio emaitzak erlatibizatu egin behar direla, "ez delako zehaztu non eta nola egin diren azterketak; Europan sistema hori atzerriko hizkuntzak neurtzeko erabiltzen delako eta gurean euskara ez delako atzerriko hizkuntza; eta euskararen egoera diglosikoa-gatik". UGTren iritziak, irakasleen maila ere neurtu beharko litzateke. "Iraleren bitartez birziklatu ostean, gabezia ugariarekin iristen dira ikasgelara".

G

Hizkuntz ereduak eta euskalduntzea



Emaitzak ikusita, hainbat galdera sortu zaizkie beste batzuei. Felix Etxeberria EHUko irakasle katedradunak galdera bat botatzen du: “Zer arraio ari gara ingeles hizkuntza 4 urterekin ikasten? Non daude lehentasunak? Ez ote litzateke egokiagoa euskara indartzea adin horretan eta ingelesa ikasten hastera 6 edo 8 urterekin?”.

Igor Arroyo Euskal Herriak Bere Eskola ekimeneko kideak beste zailantza batzuk ditu: “Zer gertatuko da hurrengo ikasturteko matrikulazioekin? Zer gertatuko da A eta B eredu-tan matrikulatu diren haur horiekin? Zer egingo du Hezkuntza Sailak haur horien hizkuntz eskubideak bermatzeko? Izan ere, aztoratzekoa da hizkuntz eredu batzuek indarrean dagoen legedia ez dutela betetzen aitortzea, eta hizkuntz eredu horiek eskaitzen jarraitzea”.

Hemendik aurrera egin beharrekoak

Irtenbideak eta proposamenak ere badira. Iñaki Lasa Kontseiluko Ildo Politikoko-Instituzionaleko arduradunak dio hizkuntza eskubideak gizartearen arlo guztietan eta sistematikoki urratzen direla. “Horregatik, hizkuntz politika desegoki horren zama-rekin ezinbestean behar dugu politika berri bat”.

Etxeberriak eredu bakarra behar dugula dio, “D eredu indartu eta beste biak, A eta B, desagertu. Horrez gain, gure ikastetxeen curriculum, metodologia, baliabideak berraztertu egin beharko dira. Irakasleok ere badugu zer berri hizkuntzen irakaskuntza alorrean. Ikuspegi formalista

eta gramatikala mugatuz, orientabide komunikatiboa eta integratzailea landu beharra dago. Hizkuntzari zor zaion garrantzia emanez, denok hizkuntza irakasleak gaituz ohartuz”.

Aldaketa horiek bultzatzeko, behar den formazioa bideratzeko eta errefortzuak eta baliabideak ezartzeko administrazioaren babesa eta laguntza beharrezkoa dela dio.

Arroyok interesgarritzat jotzen du eskolak euskalduntzea bultzatzeko eta koordinatzeko institutu bat sortzea. Horrekin batera, neurri zehatzak aipatzen ditu, besteak beste Euskal Herriko Irakasle Eskoletan erdal adarrak desagertzea, “ez baitu zentzurik elebidunak ez diren irakasleak hezitzen jarraitzea”. Itziar Idiazabal EHUko Euskal Filologiako irakasle katedradunaren iritziz, irakasleek gehiago parte hartu beharko lukete subjektu diren hainbat ikerketetan eta ikas-materialgintzan. Eta unibertsitatean leku gehiago egin beharko litzaioke hizkuntzaren didaktikari.

LAB sindikatuak A eta B ereduak desagertzeko eskatu du. “Hizkuntza murgiltze eredu bakarra sortu behar da, D eredutik abiatuz” dio. ELAk irakasleen formazioan sakontzea eta etor daitezkeen aldatetarako irakasleak prestatzea proposatzen du. Eta EILASek Hezkuntza Sailari beharrezko baliabideak jartzeko eskatzen dio.

Tasio Erkizia irakaslearen iritziz, “denbora bukatzen ari zaigu. Belar-naldi berri bat ezin dugu porrotera eramanez”. Hori dela eta, berak bost berrikuntza ildo proposatzen ditu: euskararen normalizaziorako plangintza

orokorra egitea, gizarte osoan; murgiltze ereduaren biderei ekitea; euskara eta euskal kultura uztartzea; ahozko erabilera gehitzea; eta administrazioak eta herri eragileak elkarlanean aritzea.

Idiazabalek ez du uste konponbiderako lehen neurria A eta B ereduak kentzea denik. “Ez al gara oraindik ohartu, hizkuntza eta eskola kontuetan, beste gauzetan bezala, gutxi balio duela derrigortasunaren eta denak berdinen legeak? EAEn, eta zorianez Nafarroan ere bai, B eta D ereduak oraindik gora egiten ari dira. Badirudi euskara gehiago nahi dutela gurasoek. Eskaera hori zertan datzan sakon aztertzea eta behar bezalako erantzuna ematen den aztertzea askoz aberasgarriagoa dela iruditzen zait berdintasunaz eta derrigortasunaz mintzatea baino”.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak hainbat neurri jarriko ditu abian. Batetik, irakasleen euskara maila hobetzeko ikastaroak antolatuko dira, hots, perfektionamenduzko ikastaro espezifikoak. Bestetik, etapa bakoitzaren amaieran lortu beharreko euskara maila zehaztuko da, Haur Hezkuntzatik DBHra. 8 eta 16 urte bitarteko euskararen curriculum aurreratu da.

Horrez gain, hemendik aurrera ere oraingoa bezalako ebaluazioak egiten jarraituko da, eboluzioa ikusteko.

Nafarroako eta Iparraldeko agintariek ez dute ezer adierazi. EAeko Hezkuntza sailburuak bai. Datuak eta proposamenak hor daude. Egitura aldatzeko apustua egingo al du hurrengo Hezkuntza sailburuak?

Haurtzaroko euskaltegiak




Lore ERRIONDO

UEUko zuzendaria

1964ean Baionan bildutako idazleek euskara estandar bat sortzea eskatu zuten; gero, 1968an, Euskaltzaindiaren Arantzazuko bileran euskara estandar haren oinarria jarri zen. Artean, batzuentzat euskararen biziraupenerako hil ala biziko erabakia zen. Egoera hantant biltzarrekoei burutik ez zitzaien keela pasako berrogei urte beranduago egunkaria eta telebista euskaraz egon zitekeenik. Edo bai? Orduko euskaltzainek, abade batzuk, laikoren bat edo beste eta tartean komunistaren bat, nekez jakin zezaketen geroan gerta zitekeena. Bazekiten jakin erabaki zaila, eta batzuentzat lazgarria, zela. Hizkiren bat gorabehera, muinean haiei zor diegu gaur daukaguna. Euskaltzaindiari zor diogu, besteak beste, 1987an argitaratutako aditzari buruzko gramatika. Hor dago, beste adibide bat, prozesu horren emaitza berri-berria: Hiztegi Batua.

Euskara Batuari bidea eman ziotenean euskaldunen proportzioa gaurko adinako izan zen. Orduko datu zehatzik ez dago. Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaian altuxeago izango zen, baina, oro har, gaurkoaren antzera izango zen. Orduan, hori bai, 800.000 pertsona gutxiago bizi ziren Euskal Herrian, gutxi gorabehera. Urte horietan



Xabier ISASI

UEUko kidea

gerra osteko aurreneko ikastolak ere sortu ziren. Hizkuntza irizpidek eta gabezien gainerik borondatea zegoen orduan. Dena zen berritzailea, besterik ez zitekeen izan eta. Nolabait, Euskara Batuaren usoa 1978an hasi zen hegan Bilboko San Mames futbolzelaian.

Euskara Batua sortu zen ingurune beretik euskalduntze alfabetatze mugimendua abiatu zen. Hiztun berriak behar ziren hizkuntza zaharberriurentzat. Ia-ia lau biztanletatik bat euskaldundu behar zen, eta laugarrena alfabetatu. Hizkuntza estandarizatu beharrek zekartzen buruhaustea ez ziren nolana hikoak. Orditik hona letren eta hitzen dantza ohiko bihurtu zaigu. Baina milaka gazte eta heldu euskaldundu egin izan dira, gaueskola eta euskaltegietan egindako lan eskergari zor.

Diktadura amaitu eta gero, diktadoreak akabatu ondoren, orduan hasi zen euskara sartzeko ikastetxeetan. Egoera larria zen oso. Estandarizazio prozesu abiatu berrian zegoen hizkuntza, apenas literaturarik ez zeukana, ikasmaterialek gabekoa, eskola hizkuntza bihurtu beharra zegoen. Halere, gabeziarik latzena irakasleena zer. Ez zegoen irakasle euskaldun nahikorik gizartearen eskakizun zabala asetzeko. Askotan

euskaraz jakitea nahikoa zen irakasle izateko. Salbuespen egoeran geunden. Orduko irakasle askok lanean ari zirela lortu zuten lanbide haren legezko titulazioa. Eta ez ziren irakasle txarrak.

Irakaskuntzaren jardueran, ikasleak eta irakasleak salbu, zerbait ezinbestekoa bada hizkuntza da, eskola hizkuntza, alegia. Ikastoletan gurasoek jarri zituzten ikasleak, sarritan gurasoak eurak izan ziren lehengo irakasleak edo gurasoek bilatutakoak. Hirurogei eta hamarreko urteak urte oparoak izan ziren, gerora, deituko zen *euskalgintzarako*. Urte hartakoak dira UEU eta Elhuyar, esate baterako, urte horietan ere, hasi zen ikusten eta entzuten euskaraz hedabideen erakuslehoetan eta, hamar kadaren hondarrean, legez tatu izan zen euskararen sarbidea unibertsitate aurreko irakaskuntzan. Halere, ia den-dena egiteke zegoen.

Laurogeita batean euskaldunen aurreneko errola egin zen EAEn, laurogeita bai *Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Legea* onetsi zuen Eusko Legebiltzarrak. *Laurogeita hiruan*, uztailearen 11ko 183/1983 dekretuan arautu ziren lehenbizikoz *irakaskuntza elebiduneko* A, B eta D ereduak. Eta laurogeiko hamar urtekoetan helduen euskalduntze alfabetatze mugimenduak krisi latza bizi behar izan zuen. Garai hartako Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo sailburu batek heldu erdalduinak euskararako galdutzat jo zituen. EAeko hizkuntza politika hasi berria Lehendakariaren ardurapean zegoen, Jaurlaritza osoari zegokion, beraz. Urte horietan hizkuntza politikaren aldateta esanguratsua gertatu zen. Ohar-kabea, baina orditik gaurdaino euskararen berreskurapenaren zama ia guztia hezkuntzan jarri zen.

Hizkuntz ereduak, ez dakigu zergatik batzuk esaten dieten *ikastereduak*, A, B eta D, guztiek, ikasleak derrigo-



Hizkuntz ereduak eta euskalduntzea

G

rezko eskolaldiaren amaierarako euskalduntzea jarria zuten helburua. Asmo onez eta helburu zintzoez egindako diseinuak porrot egin du. Diseinu horrek ez ditu ikasleak euskalduntzen eta, okerragoa dena, ez du bermatzen –jatorrizko– ikasle euskaldunek eurek hezkuntza maila onik lortzen dutenik.

Euskara, oraindik ere, salbuespenak salbuespen, ez da eskola hizkuntza. Kasurik onenean komunikazio hizkuntza izatera iritsi daiteke, baina ez eskola hizkuntza bere adiera osoan. Egia da, aitor dezagun, irakaskuntzako hizkuntz ereduak esker euskararen itzala zabaltzea lortu dela. Baina euren jatorrizko helburuak lortzeko ez dutela balio nabarmen geratu da hogeitau urte luze hauetan. Oro har, A eta B ereduak ez dute balio izan jatorrizko erdaldunak euskalduntzeko eta D ereduak, tamalez, ez du balio jatorrizko euskaldunak (edo elebidunak) maila nahikoko hiztun alfabetatuak izan daitezen. Larria da jatorrizko erdaldunak ezin euskaldundu izana baina are larriago, gure ustez, (D ereduak) jatorrizko euskaldunak nahikotasun mailaraino iritsi ezin izana.

Esanak esan, hezkuntzaren ikuspegitik hizkuntz ereduak porrota ukaezina da. Ereduak, bada, hezkuntzarako

**Hizkuntza politika
errotik aldatzeko,
governuburuaren
–Lehendakaritzaren–
ardurapeko izatera
igaro beharko
luke berriz.**

baino hizkuntza politikarako tresnak izan dira, horrela sortu ziren eta. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Ikerkuntza eta Unibertsitate Sailak egiten du hizkuntza politikarik eraginkorra. Baina eraginkorak izan ote dira?

EAEko hizkuntza politikarako arduradun gorenak adierazi digute, berriki aurkeztu diguten III. Soziolinguistikazko Maparen kariaz, euskaldunen kopurua azken hogeitau urteetan 200.000 hiztun berriekin emendatu dela. Aipatu epe hori eta hizkuntz ereduak orain arteko iraunaldia bat datoz. A, B eta D hizkuntza ereduak benetako hizkuntza politikaren zutarria izan dira.

Dauzkagun datuekin (EUSTAT) euskalduntze prozesuaren jarraipena egin dugu (kohorte analisia). Bost urtetako adin segmentuak, lau adin talde, aztertu ditugu. Azterketaren ondorio nagusiak honako hauek dira:

1. Derrigorrezko eskolaldian, 16 urte bitartekoena, euskaldundutakoak ez dira iristen jatorrizko erdaldunen here-izatera.

2. Ikuspegi soziolinguistikotik, bada, haurtzaroko euskaltegi hauek ez dira pentsazitekeen bezainbat eraginkor. Belaunaldi gazteenetan erdaldunen kopurua hazi egiten da eta.

3. Belaunaldi gazteenetan, euskaldunen artean, jatorrizko euskaldunen proportzioa % 50etik behera dago.

4. Derrigorrezko eskolaldian euskalduntze prozesua jarraikorra da. Hala ere, derrigorrezko eskolaldia amaitzerakoan prozesu hori eten egiten dela antzeman daiteke.

Esanak esan, hizkuntza politika errotik aldatzeko governuburuaren –Lehendakaritzaren– ardurapeko izatera igaro beharko luke berriz. Batetik hizkuntza politikak pisu politiko han-

diagoa izateko eta, bestetik, governuko sail guztietan –zehir bidez– eragin ahal izateko. Governuburuaren –Lehendakariaren– esku baitaude ildo politiko nagusiak; adibidez, informazio eta komunikazio teknologia berrien hedapena, berdintasunaren gaiak eta abar.

Hizkuntza ereduak diseinuak porrot egin du kualitatiboki zein kuantitatiboki. Ereduak, Ak, Bk zein Dk, ezarritazeukaten xederako ez dute balio, alegia. Berriz diogu, hizkuntza politika goitik behera aldatu beharra dago. Alderdi batetik, euskaldunek, batez ere jatorrizko euskaldunek, kalitate maila jasoagoko hezkuntza behar dute euskararen hizkuntza komunitatean ernamaina izan behar dutelako. Beste alderditik, eskolatik harago, euskalduntzearen erantzukizuna gizarte osoari zabaldu behar zaio. Murgiltze ereduak beharrezkoa dira euskararen normal-kuntza prozesua iraunkorra eta jarraikorra izan dadin. Euskararen normal-kuntzaren xedez ikastetxe bakoitzak, bere beregizko ezaugarriak eta ingurunea aintzat harturik, urteroko normal-kuntza planak diseinatu, egikaritu eta ebaluatu beharko lituzke.

Edozelan ere, murgiltze ereduak eraginkor funtziona dezaten irakasleriaren prestakuntza eta antolaketa beraztertu beharko liriteke. Alde batetik, murgiltze prozesuetan adituak izatea beharrezkoa baita eta, beste aldetik, irakasleriaren berrikuntza prozesua bizkortzea ezinbestekoa delako. Egokerrak aztertu beharko liriteke euskararen normal-kuntza bizkorragoa eta eragin-garriagoa izan dadin.

Eskolak, ikasleen eta guztion hobe beharrez, euskaltegia izateari utzi behar dio.

EAEko hezkuntzako ereduak



Mari-Jose AZURMENDI

EHko irakaslea eta BAT Soziolinguistika aldizkariaren zuzendaria

2004. urtean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak euskararen lorpena aztertu du, EAEko hezkuntzako hiru eredu linguistikoen arabera (A, B, D), "ikasleriari nahitaezko ikastaldiak bukatzerakoan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko adina" helburua lortzen den ala ez ebaluaketa egiteko. Euskararen sei ezagutza maila bereiztu dituzte (ALTEren eskalaren arabera): A1 eta A2 (oinarrizko erabiltzailea), B1 eta B2 (erabiltzaile bere kabuzkoa), C1 (EGA maila) eta C2 (erabiltzaile gaitua). Azterketaren emaitzek diotenez, A ereduan (erdal ereduak) ez da A1 maila ere lortzen, erabateko porrota izanez helburuarekiko; B ereduan %32,6k soilik gainditzen du B2 maila; eta D ereduan, berriz, %68k soilik gainditzen du B2 maila. Horrela, esan daiteke B ereduan, eta neurri batean D ereduan ere, nahiko porrot handia gertatzen dela helburuarekiko. Horrenbestez, egoerak erabat kezagarria dirudi, ez soilik azkeneko hogeitau eta gehiago urtetan zehar helburutik urrutijoa garelako, baita ere ezagutza maila kaskarretik ezin delako espero euskararen erabilera arrunta, informala, bere kasakoa izatea. Horrela, eskolatik kanpo euskararen erabilera eskasa dela esaten denean, eta eskola barruan ere horrela gertatzen dela ikus-

tean, besteak beste, neurri batean ezagutza faltagatik dela esan daiteke. Printzipio psikolinguistiko batek zera esaten du: joera nagusia dela ondo baino hobeto ezagutzen den hizkuntza erabiltzea modu arruntan eta orokorrean, horrela eginez norbera eroso sentitzen delako.

Badirudi hogeitau urte eta gehiagoko eredu plangintza honek gehiegi iraundu dela lehenago ebaluaketarik egin gabe, batez ere nahikoa jakina zenean, azterketarik gabe ere, A ereduak ez zuela ikasleria euskalduntzen eta B ereduak ere larri euskalduntzen zuela. Baina, zorionez azkeneko azterketa eta ebaluaketa egin da, errealitatea argiago adieraziz. Ebaluaketaren ondoren plangintza berriro biplanteatu behar dela ikusi da: bai helburuak mantentzen edo aldatzen diren ikusteko, baita jartzen diren helburuak lortzeko zehazki nolako bideak erabili behar diren jakiteko. Gure kasu honetan, helburu berdina mantentzen bada ere, hau da, hezkuntzaren bitartez haur guztiak euskalduntzea, nahikoa euskalduntzea, euskararen erabilera ziurtatzeko adina behintzat (B2 maila nahikoa al da?, ala C1 edo C2 mailak lortu beharko dira?):

1) edo dauden ereduak birplanteatu beharko ditugu, A ereduak kenduz eta beste bi ereduak berrantolatuz;

2) edo hiru ereduak mantentzen badira erabat aldatu eta berrantolatu beharko ditugu. Birplanteatu eta berrantolatze horrek derrigorrezkoa behar du izan, hezkuntza mailan derrigorrez gertatzen diren bezala bestelako erabaki akademiko gehienak ere.

Hezkuntza arloan gurenean gertatu denak ez gaitu gehiegi harritu behar. Soziolinguistikak, Psikolinguistikak edo Psikosoziolinguistikak, adibidez, auresaten dute gurea bezalako hizkuntza ukipen egoeratan gertatzen dena: gero eta handiagoa izan ukipen

egoerako bi hizkuntzen bizindarra eta boterearen diferentzia, gero eta handiagoa izan bi hizkuntzen arteko asimetria, orduan eta errazago gertatzen da hizkuntza boteretsuena ia ezer egin gabe ikastea, baina hizkuntza ahulena, alderantziz, babes berezia eta handia eman beharra izatea, hezkuntzaren bitartez batik bat, egitan nahi bada bi hizkuntzak ondo menperatzea edo elebiduntasun orekatua eta orokorra lortzea. Hau da, oraingo D ereduak derrigorrezkoa da egitan nahi bada haurrak eta gazteak orokorrean euskalduntzea. Hala ere, D ereduak ere berrantolatu beharko dugu, esparru guztietara zabalduz, eskola mundutik kanpo ere landuz, psikologikoki nahikoa erraztasuna lortzeko eta euskararen erabilera arrunta ziurtatzeko. Hau da, aldaketa sakonak behar dira hezkuntzan, egitan nahi badugu euskararen erabilera arrunta ziurtatu.

Jaurlaritzak bideratu duen azterketa horrek ematen du beste zenbait gauza esateko ere. Adibide moduan, ondo puntuak erabiliko dit. B eta D ereduak bost trebetasun hauen arabera konparatzen ditu: mintzamina, hizkuntzaren ezagutza, idazmina, entzu-

B ereduan B2 ezagutza maila eskatu beharko litzateke derrigorrez, eta D ereduan C2. Ezagutza maila kaskarretik ezin baita espero euskararen erabilera arrunta, informala

mena eta irakurmena. Bi ereduaren arteko diferentzia handiena mintzamenean lortzen da; hau da, mintzamena da nekez gertatzen dena B ereduaren. Besteak beste, hori azaltzeko arrazoi bat zera izan daiteke: B ereduaren euskara 2. atzeritar hizkuntza moduan ikasten dela, gurean ingelesarekin gerta daitekeen bezala, ukipen egoerak ematen dituen abantailak aprobetxatu gabe, hau da, eskolatik kanpo euskara erabiltzeko dauden aukerak batere aprobetxatu gabe (euskaraz mintzatu eskolatik kanpo, irakurri, telebista ikusi, eta abar). Hori, jadanik ezaguna zitezagun (neronek egindako ikerketa batzuetan horrela ikusi dugulako), eta hutsune handia da metodologikoki begiratuta.

Azterketaren iradokizunetan zera esaten da: "B2 ziurtagiria proposatzen da derrigorrezko irakaskuntzaren amaierako". Proposamen horrek kezkatzen nau: 1) alde batetik, B2 mailak ez duelako ziurtatzen euskalduntze maila nahikoa handia eta erosoaren erabilera arrunta eta espontaneo lortzeko; 2) adibidez, etorkizunean B eta D ereduak mantentzen baldin badira, B2 mailak izan behar lukeelako gutxienez B eredurako, baina D eredurako C2 maila ziurtatu beharko litzatekeelako.

Hau da nik proposatuko nukena:

a) edo D ereduaren soilik mantendu etorkizunean, bertan eman behar diren aldaketak emanez;

b) edo, gutxiengo moduan, B eta D ereduak mantentzea, baina biak sakon aldatuta eta birplanteatuta: B ereduaren gutxienez B2 ezagutza maila derrigorrez eskatuz, eta D ereduaren C2 maila ere derrigorrez eskatuz.

Hori lortzeko zenbait aldaketa egin beharko dira, horien artean metodologikoak ere bai, honako helburua lortu nahi bada: gure haur eta gazte guztiak nahikoa maila handian euskalduntzea, euskararen erabilera arrunta eta eroso ziurtatu ahal izateko.

Nire gogorik onenak hezkuntzan egin behar diren birplangintzak bideratzeko eta nire animo handienak birplangintza hau egingo dutenentzat.

Hizkuntz ereduak gainditu



Xabier MENDIGUREN
BEREZIARTU

Kontseiluko Idazkari Nagusia

Euskalgintzaren baitan aspalditik entzuten den kexu, nahi eta eskariari erantzuten dio perpaus horrek. Hizkuntza-ereduen sistema gainditu egin behar da. Zergatik? Agintzen duena betetzen ez duelako, hau da, gure haur eta gazteak euskalduntzea lortzen ez duelako. Eta ondorioz, gazte horiek duten euskara jakin eta erabiltzeko eskubiak bermatzen ez duelako eta, hedapenez, euskaraz bizi nahi dugun euskaldunon ere ez.

Duela mende laurden bat ereduaren sistema abian jarri zen garaiko egoera eta beharrak zeharo bestelakoak ziren eta orduko une hari erantzuteko sortutako sistemak ia bere horretan nola iraun duen ikustea harrigarri gertatzen zaigu. Interes askoren inguruko eztabaidagai bihurtu dira, baina berriki jakinarazi ziren emaitzen datuen ondoren inork gutxi ukatuko du sistema horrek errotik aldatu beharra duela aitortzen omen duena (gazte elebidunak prestatzen dituela) bete dezan eta azkengabe-

ki iruzurra betikitzen jarrai ez dezan.

Baina esandakoa onarturik ere, aldaketa horrek badu arrisku bat baino gehiago, aldatzea beharrezkoa izanik ere ez da helburua, euskalduntzea da helburua eta hori ez du aldaketa hutsak segurtatzen. Irakasleak lehengoak badira, baliabideak lehengoak badira, gizartearen hezkuntzarekiko jarrera lehengoak bada, eta gainera beste bi hizkuntza (gaztelania/frantsesa eta ingelesa) ikasi nahi badira maniobragarritasun handiegirik ez da izango.

Horregatik, bai, ereduak gainditu behar dira, baina nola gaindituko diren jakitea baieztapen hori egitea bezain garrantzitsua da, zeren horri behar bezala erantzutetik etorriko baita belaraldi berriak eraginkortasunez euskalduntzea. Eraginkortasunez diot, zeren guk nahi dugun euskalduntzea hizkuntza arrotz bat "ezagutze" hutsa baino zerbait gehiago baita. Euskara komunikatzeko ez ezik, bizitzeko eta eroso bizitzeko tamainan menderatuko duten euskaldunak nahi ditugulako. Eta ondorioz dakigu erdarazko komunikabideek abaildurik gauzkatzen Euskal Herri honetan zeinen zaila den egunero borroka egin gabe euskaldun izatea, azken finean, euskaldun izateak ezinbestez euskaltzale izatea baitakar.

Beraz, "hizkuntz ereduak gainditu" diogunean gramatika edo lexikoko elementu batzuk txukun taxutu edo antolatzea baino askoz gehiago eskatzen ari gara, eta hori ezinezkoa da parez pare kultura oso bat, ia bizi-estilo bat ere transmititzen ez bada, kultura unibertsaleko ondasun nagusien ezagutzarekin uztarturik.

Hizkuntz ereduak
eta euskalduntzea

G

xabier garagorri

Pedagogoa eta Eskolaldirako Euskal
Curriculuma egitasmoaren
zuzendaritza eta diseinu taldeko kidea



Azken helburua guztiok elementu
komun batzuk adostea eta Euskal
Herriko eskola guztietan kultur
elementu berak lantzea da, gure
kulturaren transmisioa ziurtatzeko



Herri honek eskubide guztia du bere kultura belaunaldi batetik bestera ziurtatzeko. Transmisio horretarako, eskola instituzio indartsua da. Eskola da biztanle guzti-guztiak, hasi gutxienez 6 urtetik eta 16 urtera arte, biltzen dituena. Hori ahalmen ikaragarritzko tresna da, gure kasuan, euskal kultura belaunaldi batetik bestera ziurtatzeko, eta aprobetxatu egin behar dugu

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko Aholkulari Pedagogikoa da Xabier Garagorri, baita EHUko irakasle ere, Didaktika eta Eskola Antolaketa Sailean. Lanari batera beldurrik ez dion gizon hau Eskolaldirako Euskal Curricula egitasmoaren zuzendaritza taldeko eta diseinu taldeko kidea da.

Eskolaldirako Euskal Curriculumen aurkezpen publikoa egin berri dute. Orain, proposamen horri eskolek bereziki, baina baita gizar-teak ere zer onarpen maila ematen dion ikusi beharko da. Ahal beste ikastetxetan proiektua eztabaidatzea eta baloratzea da euren helburua, irailean bertan hasita. Euskal curriculumak zabalduko dituen ateen berri jakiteko irrikaz hurbildu gara Xabier Garagorriarengana.

Zein da Eskolaldirako Euskal Curriculumen azken-azken helburua?

Muinetara joanda, azken-azken helburua litzateke erabakitzea derrigorrezko eskolaldia bukatutakoan Euskal Herriko ikasle guztientzako oinarrizkoa eta komuna zerk izan behar duen. Gure errealitatea, gustatu-ez gustatu, bi estatu eta hiru administrazioetan banatuta gaudela da; baina horrek ez du izan behar aitzakia konturatzeko herri honen ere baduela bere nortasun propioa, bere kultura propioa, eta eskubide guztia duela bere kultura (beste edozein herri egiten duen bezala) belaunaldi batetik bestera ziurtatzeko. Kultur transmisio horretarako, eskola instituzio indartsua da. Eskola da biztanle guzti-guztiak, hasi gutxienez 6 urtetik eta 16 urtera arte, biltzen dituena. Hori ahalmen ikaragarritzko tresna da, gure kasuan euskal kultura belaunaldi batetik bestera ziurtatzeko, eta aprobetxatu egin behar dugu.

Euskal curriculumaren proposatzen dugunean ez gara esaten ari Estatu frantziarretik eta espainiarretik datozen derrigorrezko curriculumei uko egin behar dietenik gure eskolek; ez da gure eginkizuna horretan sartzea. Baina gutxienez nahi duguna da gure eskola guztiek ziurtatzea, Zuberoako, Goierriko eta Errioxako ikasle batek, oinarrizko elementu bateratu batzuk izango dituztela, horrek egiten baitu gutasuna. Nahiz egoera politiko-administratibo desberdinak izan, gutasun minimo hori ziurtatu nahi dugu.

Horrekin ez ditugu ahaztu behar bakoitzaren berezitasunak. Euskal curriculumak lekuan-lekuko errealitate kulturaletik abiatzea eskatzen du, eta baita ukipeneko kulturak kontuan hartzea ere. Azkenik, ofizialak diren curriculumak ere nolabait besarkatu beharko lirateke, eta Europako eta Unibertsoko dimentsioa ere besarkatu behar litzateke.

Estatuen curriculum ofizialak ere nolabait besarkatu behar dituela diozu. Suposatzen da egun, Estatu espainiarreko curriculum ofizialean hizkuntza propioa duten autonomia erki-



dego bakoitzak % 55 jartzen duela beretik. Zer alde legoke horren eta euskal curriculum "besarkatzaile" baten artean?

Ehunekoek % 45 edo % 55 izan ez du gaia asko argitzen. Azkenean curriculumek antzekotasun handiak dituzte; badirudi Estatu espainiarrekoak eta frantziarrekoak oso desberdinak direla, baina funtsean antzekotasun handia dute, eta Europako curriculumek berdin. Kontua gehiago da pilotaren kixkia nork jartzen duen. Kixkiak zer material eta zer neurri eduki, pilotak halako ezaugarriak izango ditu. Gurera etorri, nik ez daukat inongo kezkarik Europako edo beste inongo curriculumak gurera ekartzeko, baldin eta gu ardatza jartzeko gai bagara.

Euskal kulturanguztiongan komuna zer den definitu beharko da, beraz. Baina, eta zer da euskal kultura?

Hainbat ikuspegi daude kultura zer den eta zer ez den definitzerakoan, eta gu Barandiaranen ikuspegian oinarritu gara. Bere esanetan, gizabanakoak eta gizataldeek dauzkaten beharrei ematen dizkieten erantzunak dira kulturak. Barandiaranek zazpi behar bereizten ditu; oinarrizko beharizanak dira, leku eta garai guztietako gizaki orok dituenak. Baina behar horiei ematen zaizkien erantzunak desberdinak dira inguruaren eta garaiaren arabera.

Barandiaranek, beraz, zazpi behar bereizten ditu: nola lortuko dut janaria,

edaria eta osasuna; nola babestuko naiz; nola lortuko dut mundua ezagutzea eta bere baliabideak nire zerbitzura jartzea; nola lortuko dut nire antzekoen laguntza eta nola antolatu gizarte bizitza; nola komunikatuko naiz nire antzekoekin; nola egingo ditut atsegin eta gustuko zaizkidan gauzak (festak, dantza, artea); nor naiz ni, zer da gizartea, zein da nire xedea (mitoaren mundua, errietoarena, erlijioarena).

Euskal Herrian ere badaude oinarrizko behar horiei erantzuteko era espezifikokoak, era askotarikoak eta dinamikoak, euskara izanik guztien artean esanguratsuena. Baina mundu globalizatu batean gaude, eta gure bizitzeko erak lotura zuzenak ditu munduko beste era guztiekin. Partikularra eta unibertsala lotzea da euskal curriculumaren ezaugarri nagusi bat ("Herritik mundura eta mundutik herrira" du lema).

Zein izan dira curriculumak diseinatzeako urratsak?

Egoeraren diagnostiko bat egin genuen eta marko teoriko bat planteatu. Hori izan zen lehenengo urratsa. Baina fase horrek izatez ez du mugarik: marko teorikoan sartzen zarenean, curriculumak zer den, "euskal" zer den, zurrubilo horretan sartzen zarenean, horrek mugarik ez dauka.

Behin eztabaidatuta, hurrengo urratsera pasa ginen: zer egin eta nondik hasi. Lehen aldia zenez euskal curri-

Gutxienez
nahi duguna da
gure eskola guztiek
ziurtatzea,
Zuberoako,
Gbierriko eta
Errioxako ikasle
batek oinarrizko
elementu bateratu
batzuk izango
dituztela, horrek
egiten baitu
gutasuna. Nahiz
egoera politiko-
administratibo
desberdinak izan,
gutasun minimo
hori ziurtatu nahi
dugu

Hainbat
ikuspegi daude
kultura zer den eta
zer ez den
definitzerakoan. Gu
Barandiaranen
ikuspegian oinarritu
gara. Bere esanetan,
gizabanakoak eta
gizataldeek
dauzkaten beharrei
ematen dizkieten
erantzunak dira
kulturak.
Barandiaranek zazpi
behar bereizten
ditu

culum bat hemen barrutik eta gure kabuz definitzen hasi ginena, eta biderik egokiena Euskal Herriko adituengana jotzea zela iruditu zitzaigun, eta haiei honako hau galdetzea: zure jakintza esparrutik, esaiguzu zer den Euskal Herrian bizi den pertsona kulturek (ez zen eskolari begira, bizitza osoari baizik) zure jakintza arloaz gutxienez ezagutu behar duena, egiten jakin behar duena, eta behar dituen balioak. Horri deritza “Euskal Curriculum: kulturibilbidea. Adituen ekarpena”, eta jada argitaratua dago (bertan zehazten dira pertsonaren garapenerako hiru dimentsio, hamar gai multzo, 50 gai). Ikuspegi orokorra du: hezkuntzaren eginkizuna bizitza guztirako dela, ez dela eskola garairako soilik, alegia.

Erreferente horretan oinarrituz, hirugarren urratsean sartuta gaude burubelari: eskoladirako euskal curriculum egiten ari gara. Galdera aldatzen da, beraz: “zer da Euskal Herriko 16 urteko gazte batek, derrigorrezko eskolaldia bukatzen duenean, garatu eta erakutsi behar dituen kompetentziak eta Euskal Herriaz eta munduaz jakin behar duena”.

Zein da hezkuntzaren xedea bizitza osoari begira, eta zein eskolaren egitekoa?

Curriculum guztiek euren hezkuntzaren xedea definitzen dute. Gure

abiapuntua pertsonaren garapenaren ikuspegia da. Pertsona gizabanako gisa, gizartekide gisa eta izadikide gisa osatzen da. Hiru dimentsio horiek elkarlotuta daude. Hezkuntzaren funtzioa, beraz, pertsonaren hiru dimentsio horiek garatzea izango da. Eginkizun hori bizitza guztirako da.

Zentzu horretan, eskolak egin behar duena da bizitza guztirako erronka den horretarako prestatu, hau da, hezkuntzaren xedek bete ahal izateko prestatu. Zein da ezinbesteko ekipamendua gazte batek bizi ibilbideari modu egokian ekiteko eta hezkuntzaren xedek lortzeko? Gure ustez, gazte batek bizitzako behar bezalako prestakuntza izango du, baldin eta pentsatzeko eta ikasteko, komunikatzeko, elkarrekin bizitzeko, norbera izateko eta ekiteko gai bada. Horiek dira, gure ustez, hezkuntzako kompetentzia orokorrak, eta ikas arlo guztiek kompetentzia horien zerbitzura egon behar dute. Curriculumaren diseinua egiterakoan, aditu bakoitzari zera eskatu diogu: zehaztea bere arloak (esaterako, matematikak) zer ekarpen egiten dion horietako kompetentzia bakoitzari.

Pertsonaren kompetentzietan oinarritzea ekarpen berria da curriculumetan, ezta? Estatu espainiarreko eta frantziarreko curriculumetan ez dira hortik abiatzen.






Gaia ez da hain berria. Hezkuntzarako kompetentzia orokorra Europa-ko herrialde guztietan planteatzen ari diren zerbait da. Unibertsitate mailan ere, Bologniako adierazpenaren ondoren, nabari da horrantzako joera dagoela (une honetan plangintzak eta aldatzen ari gara). Beraz, euskal curriculuma Europako mugimenduarekin eta unibertsitatearen berrikuntzarekin sinergian dago.

Beharbada, gure ekarpenaren be-

rrikuntza oinarrizko kompetentzia horiek eta ikas arloak uztartzea izan daiteke. Bestetik, orientazioa eta tutoretza ikastarlobezala planteatuko ditugu, eta hori ere gauza berria da. Beraz, diseinu aldetik ere berrikuntzak dakartzala pentsatzen dugu. Kalitatezko hezkuntza proposamen bat egin nahi dugu, baitetik gure helburuak lortzeko eraginkorragoa izan dadin, eta azken batean, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko ere. Hori euskal curriculumaren balio e-

Euskal curriculumak zehazten du zer den Euskal Herrian bizi den pertsona kultu batek ezagutu behar duena. Eta eskolaldirako euskal curriculumean galdera aldatu egiten da: zer da Euskal Herriko 16 urteko gazte batek, derrigorrezko eskolaldia bukatzen duenean, garatu eta erakutsi behar dituen kompetentziak eta Euskal Herriaz eta munduaz jakin behar duena



Eskolak egin behar duena da bizitza guztirako erronka den horretarako prestatu, hau da, hezkuntzaren xedeak bete ahal izateko prestatu. Gure ustez, gazte batek bizitzarako behar bezalako prestakuntza izango du, baldin eta pentsatzeko eta ikasteko, komunikatzeko, elkarrekin bizitzeko, norbera izateko eta ekiteko gai bada

rantsi bat izango litzateke, oso inportantea.

Horrek gelara aldaketa batzuk ekarriko ditu.

Handiak. Hezkuntzaren ikuspegia aldatzen du. Txipa aldatu egiten du, eta irakasle guztiok gara, nolabait, hezitzaile. Jada abiapuntua ez da diziplina edo materia bakoitza; abiapuntua pertsonaren osotasuna da, eta horri arlo bakoitzak zer ekarpen egiten dion ikuspegi hezitzailetik.

Hemendik aurrera zer?

Ikasturte honen bukaeran eskoladirako euskal curriculum proposamen bat izango dugu. Datorren ikasturtean, irailetik urtarrilera bitartean, proposamen horren sozializazioa, hausnarketa eta balorazioa jarri nahi dugu martxan. Prozesu hori zenbat eta zabalagoa izan, zenbat eta ikastetxe eta gizarte eragile gehiagok parte hartu, hobe; azken batean, curriculum baten balioa edo legimititatea gizartearen atxikimenduak ematen du. Curriculumaren erabakia ezin baita soilik oinarritu irizpide teknikoetan edo zientifikoetan, alderantziz, funtsean oinarri moral eta politikoetan hartzen den erabaki bat da. Beraz, atxikimendua zenbat eta handiagoa izan, bere legimititatea orduan eta handiagoa izaten da. Munduko diseinurik onena edukita ere ez badugu lortzen bereziki hezkuntza komunitatearen inguruko hausnarketa eta balorazioa, az-

kenean paper polit bat soilik izan daiteke.

Gizarteratze horretan, bi azpifase aurreikusten ditugu. Lehenengo, curriculum bere osotasunean baloratuko da. Horrela, proposamen horrek batez beste zer onarpen maila duen jakingo dugu. Ez dugu eztabaida moduan planteatu nahi, bukaerarik gabeko bide batean sartzea bailitzateke; hezkuntzaren xedeak gure proposamenean jarri ez diren beste batzuk izan daitezke, eta proposamen guztiak izan daitezke oso koherenteak; baina hor azkenean erabaki bat hartu beharra dago. Beraz, proposamen horren onarpen maila da neurtuko dena. Behin hori ikusita, azken helburura iritsi behar dugu: guztiontzako oinarritzakoa eta komuna den curriculumaren proposamena egitera. Guztiok elementu komun batzuk adostea da helburua; asko izan, gutxi izan, arrakasta handia litzateke guztiok zer-bait elkarrekin adostea.

Hortik aurrera, jada euskal curriculum indarrean jartzeko oinarriak izango genituzke. Gero ikusi beharko da zein diren irakasleen prestakuntza beharrak, zer baliabide falta diren, edo ikasmaterial osagarriak... Eta hori, eskolari begira. Baina esaten badugu euskal curriculum bizitza guztian zehar garatu beharreko zer-bait dela, horrek eskola garaian beste kultur eragileekin ere harremanetan egotea eskatzen du; beharbada eskolak ezin ditu euskal cu-





riculumeko esparru guztiak berak bakarrik landu. Herri honetan kultur eragile asko daude (herri honek bere gora-beherak izango ditu, baina horretan aberatsa da), eta erakunde horien eginkizuna ere bada euskal curriculuma garatzea.

Hezkuntza erakundeen artean kompetentzia handia egonagatik, proiektu honi elkarlanean heldu diozue.

Hasieran ikastolen mundutik sortuzena une honetan egitasmo askoz zabalagoa da; adituak hautatzerakoan ere asko zaindu dugu zabaltasun hori orekaz islatzea (lurrealde desberdinetakoak izatea, eta hezkuntza erakunde desberdinetakoak; unibertsitateetako irakasleekin, berdin). Zuzendaritza teknikoan gaude Kristau Eskolako kidea, Sortzen-Ikasbatuazekoa, Euskal Herriko Ikastolen Elkartekoa eta EAEko Hezkuntza Saileko beste bat. Elkarlan horrek beste dimentsio bat ematen dio curriculumari. Ez dut esan nahi Ikastoletatik soilik egin izan balitz ez lukeenik eraginik izango, edo beste ikastetxeetara ere ez litzatekeenik zabalduko. Baina aberastasun handia litzateke

herri honetan gizarteari erakustea, hezkuntza munduan gure desberdintasunak izan baditugun arren, lehiakortasun horren gainetik, gai izan garela elkarrekin lan egiteko. Ikas bezate beste batzuk ere.

Curriculumari balioa atxikimenduak ematen diola esan duzu. Administrazioek ez badute bide horrekin bat egiten, zer?

Gizarte erakundeetatik, alegia, azpitik datorren mugimendua da hau, eta bidean EAEko Hezkuntza Saila uztartu zaio. Nahiago nuke Nafarroako Gobernuarekin eta Parisekin ere lan egiterik bagenu. Poztuko nintzateke bere garaian administrazioak hau berea egingo balu. Baina ez da ezinbesteko baldintza bide honek aurrera egiteko.

Hezkuntza berrikuntzak ez dira goitik behera soilik gertatzen; ahal dela biak behar dira, baina asko etortzen dira behetik gora (urte batzuk badaramatzat irakaskuntzan eta badakit ikastoletatik hasi ditugun zenbait berrikuntza, pixkanaka-pixkanaka nola joan diren beste hezkuntza sareetara zabaltzen). Gure artean kompetentzia handia dago, eta horrek ere eragiten du inizatiba bat begi onez ikusten bada eta arrakasta badu, besteak ere berehala sartzea horretan.

Anjeles Iztuetak curriculuma sinatzeko pausoa eman zuen. Orain EAEko sailburua aldatuko balitz, akordio hori atzera botatzeko arriskua ikusten al duzue?

Nik ez nuke hainbeste esango. Datorrenak bere erabakiak hartuko ditu. Orain, nik, sailburu banintz, zer egingo nukeen? Bada hor daukazu karamelotxo bat ikaragarri goxoa. Hezkuntzaren gizarte eragileak ados daude elkarrekin lan egiteko; hori kontuan ez hartzea itsukeria litzateke. Azken batean, administrazioiko eragileen zailtasun handietako bat gizarte eragileen atxikimendua lortzea izaten da. Kasu honetan, bonboia hor dauka. Pasatzen da ados egon behar duela planteamenduokin, eta gu ez garela nor administrazioiko

Datorren
ikasturtean,
irailetik urtarilera
bitartean,
eskolaldirako
euskal
curriculumaren
proposamenaren
sozializazioa,
hausnarketa eta
balorazioa jarri
nahi da martxan.
Prozesu horretan
zenbat eta
ikastetxe eta
gizarte eragile
gehiagok parte
hartu, hobe; azken
batean, curriculum
baten balioa edo
legitimitatea
gizartearen
atxikimenduak
ematen du

Ikasleak herriari begira Oñatierari buruzko jardunaldiak antolatu dituzte ikasleek herritarrentzat

Fanean itzungitzen ez den berba baten bidia . Bide horixe jorratu dute Oñatiko Elkar Hezi ikastetxeko Batxilergoko azken mailako ikasleek. Eguneroko hizketaldietan era-biltzen duten hizkera freskoa eta bizia eskolan sartu dute. Han, oñatieraren beste alderdi batzuk ezagutu, aztertu eta landu dituzte. Eta hori dena berriro herrira atera dute. Inbidia pizteko moduko jardunaldi erakargarri eta interesgarriak prestatu dituzte herritarrentzat, eurak ikasituenaren berri emateko. Bide batez, herrian oñatieraren alde lanean jardun direnei omenaldia egin diete. Horrelako ekitaldiak antolatzeko ez da udaltxean edo herriko elkar-te batean aritu behar, ikastetxetatik ere maila bereko eskaintzak egin daitezke.



Bi hitzetan esateko, Oñatiko Elkar Hezi ikastetxeko Batxilergoko 2. mailako ikasleek egin dutena zera izan da: oñatiera landu eta horren inguruko jardunaldiak prestatu herritarrentzat. Lehenengo egitekoa nahiko ohikoa zen ikasleentzat; baina bigarrena, jardunaldi batzuk antolatzeko, gehitxo. Hala iruditu zitzaizkien hasieran, hitz potoloegiak ziren. Udalak, herriko Laixan Euskalzaile Elkartek edo beste elkarteek antolatu izan dituzte halakoak, baina ikasleek ez. Euskarako irakasle Andoni Salamerok jardunaldiak egitea proposatu zien, eta horren barruan, oñatieraren alde aritutako hainbat herritarrei omenaldia egitea. “Zer ari zaigu kontatzen? Zer egin behar dugula? Hau erotuta dago. Nola egingo dugu hori? Horrelako gauzak berari bakarrik bururatzen zaiz-

kio”. Ideia horiek zebilzkiten ikasleek hasieran. Baina, orain, dena bukatu ondoren, beste modu batera ikusten dute. Lanean hasi bezain laster joan ziren aldatzen, gustua hartu zioten, motibatu egin ziren, eta azkenean, “jota pozik, jota gustura” gelditu dira.

Hasteko, gelako lana

Oñatiko Elkar Hezi Mikel Aozaraza ikastetxean DBHko 1 eta 2. zikloko zein Batxilergoko ikasleak biltzen dira. Eskola kristaua eta euskalduna da, eta euskarari ematen dioten garrantziaren lekuko da irakasleek herriko euskaltegian egiten dituzten ikastaroak. Ikastaro honetan, besteak beste, oñatieraren inguruko ikastaro bat egin du irakasle talde batek. Oso gustura gelditu ziren jaso zutenarekin, eta ez zuten bere ho-

Ikasleek orain, oñatierari buruzko kontu gehiago dakizkitez, eta gainera, herri mailako ekitaldi bat prestatzen ikasi dute

retan utzi nahi. Ikasi zutena ikasleei transmititzeko nahia piztu zitzaion, eta horri ekin zion ikastetxe osoak. Hasieratik proiektuan buru-belarri murgildu ziren zuzendaria, ikastetxeko kultur jardunaldiak antolatzen dituen taldea eta gainerako irakasleak. Andoni Salamerok Euskara irakasleak eraman du gidaritzara batez ere, berak astindu du akuilua. “Aurreko urtean euskalkiak landu genituen, eta aurten oñatiera eta Debagoienako azpieuskalkiak lantzea erabaki nuen, baina planteamendu edo proposamen berri batekin: gelan landutakoa gero oñatierari erakustea”.

Horrela, 17-18 urteko gazteak lau taldetan banatu ziren, eta bakoitzak gai bat aukeratu zuen: 1) Euskararen jatorria, teoriak eta euskalkien banaketa; 2) Debagoieneko euskalkiak; 3) Oñatiera, grafiaren auzia, oñatiera batua bai ala ez?; eta 4) Kandido Izagirre, Bitoriano Gandiaga eta Luis Villasanteri omenaldia. Handik eta hemendik informazioa bildu ondoren, lan bat prestatu zuen talde bakoitzak, eta berau gelakideen aurrean aurkeztu. Eta ondoren, jardunaldietan.

Hiru eguneko jardunaldiak

Jardunaldien lehendabiziko egunean “Euskararen jatorria eta bilakaera historikoa (hainbat hipotesi)” zen gaia. Gai hori jorratu zuen taldeak hitzaldia eskaini zuen, eta ondoren Xabier Kintana eta Jurgi Kintana mintzatu ziren.

Bigarren eguneko gaia zera izan zen: “Deba Ibarreko azpieuskalkien inguru-

ko gainbegirada”. Ikasleen txanda izan zen aurrean, eta gero zenbait adituen arteko mahai ingurua (Asier Sarasua, Gerardo Elortza eta Roberto Altuna).

Hirugarren egunean omenaldia egin zieten Kandido Eizagirre, Luis Villasante eta Bitoriano Gandiagari, eta haien senideak izan ziren bertan. Ikasleen hirugarren hitzaldian pertsona horiek eta beste hainbatek oñatieraren inguruan egindako ekarpenak eman zituzten ezagutzera. Beraien ondoren hitz egin zuten Paulo Agirrebaltzategik eta Pello Zabalak. Egun horretan Mendata, Urretxu eta Gernikatik omenduen senideak gerturatu ziren, eta horiekin batera udalerriri horietako eta Oñatiko ordezkariak, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu Miren Azkarate eta Euskaltzaindiako Henrike Knorr.

Oro har, jardunaldiek harrera ona izan zuten, eta ikasleak pozik gelditu ziren. Banatutako balorazio orrietan hiru alderdi baloratu behar ziren: ikasleen jarduna, hizlariena eta iritzi orokorra. Bada, baloraziorik altuena ikasleen hitzaldiek jaso zuten. “Gustura gelditu ginen. Hasieran, herritarren aurrean aurkezteak beldurra ematen zigun, baina gero, behin eginda, ondo” diote ikasleek.

Oñatiera, gure ondarea

Beste gauzen artean, ikasleek jendearen aurrean hitz egiten ikasi dute, eta esperientziarekin gustura gelditu dira. Seguru gerora lagungarri izango zaiela.

Baina ez da ikasi duten gauza bakarra izan. Oñatiera aztertzen jardun ondoren, eguneroko hizketaldietan egiten dituzten akatsak ere detektatu dituzte. Hanka-sartze asko egiten dituztela ohartu dira. “Adibidez, normalean ‘ikusi otzük’ esaten dugu eta gaizki esana dago; ‘ikusi zaut’ esan beharko genuke” diote. Erdarakada asko sartzen dituztela ere konturatu dira, eta zentzu horretan, euren gurasoek edo aitona-amonak hobeto hitz egiten dutela uste dute, haien euskalkia jatorragoa dela.

Apirilaren hasieran gazte hizkeraren inguruko jardunaldiak egin ziren Azpeitian. Beste gauzen artean, gazte hizkera baturik behar ote den edo ez eztabaidatu zen. Oñatiar gazte hauek ezetz diote, bakoitzak bere hizkera mantentzea egokiagoa dela uste dute. “Herriko ondarea da norberaren hizkera, gure kasuan oñatiera, eta hori mantentzea garrantzitsua da” diote. “Gainera, polita da besteekin berba egitean haien hizkera entzutea”.

Oñatin, Laixan Euskalzale Elkarteak egindako datu bilketaren arabera, gazteen % 75,16k euskaraz hitz egiten du. Eta euskaraz hitz egitean oñatiera esan nahi da. Herritar guztiak kontuan hartuta, % 59,81 erabiltzen du oñatiera.

Inguruko azpieuskalkiekin alderatuta, baditu zenbait berezitasun, batez ere azentua eta entonazioa. Horretaz jabetzeko modurik onena oñatiera entzutea da, eta horretarako, Oñatira fan eta kito. ●





Lan kooperatiboa

Arrasateko BHI

Ikasleen aniztasunari erantzutea, horixe nahi zuten Arrasate institutuko irakasleek: diferentzien gaintik gelako harremanak hobetzea, elkarbizitzen ikastea, eta ikasle denek hobetzea euren eskola errendimendua. Horretarako, eskola tradizioan nagusi izan den eskema indibidualista eta lehiakorretik beste molde kooperatibo batera pasa beharra dago, eta hori izan da institutuko zenbait irakasleren agustua. Oraindik ez dira metodologია haumaila eta alor guztietera hedatzera iritsi, mementoz DBH osoan ziurtatu nahi dute, maila bakoitzean halako esperientzia bat gutxienez izatea ikasleek. Izan ere, lana modu kooperatiboan egiten ikasi egin behar da, ez baikaude horretara chituta.

Euren esperientziaren berri eman digute Maite Lasak (ikasle-tetxeko orientatzailea), Maite Borquek (1. zikloko irakaslea) eta Arantxa Gabiriak (matematika irakaslea 2. zikloan).



1. zikloa: diziplinarteko proiektuak puzzle metodologiaz

1. zikloan proiektuak hiru ikas arloren artean diseinatu dituzte: gizarte, natura eta hizkuntza arloetako irakasleek gai bat hautatu dute (esaterako, URA), eta gero gai hori irakasle bakoitzak bere ikasgaitik fokatuta lantzen du. Proiektuon helburua da gaiarekin lotuta dauden eduki kontzeptual eta prozedurazkoak lantzeaz gain, ikaslearen arteko harremanak hobetzea, ikasle guztiengandik zerbait ikastea, eta denek egiten duten lana baloratzea ere bai.

Lan kooperatiborako hautatu duten dinamika Jigsaw edo "puzzleare-

na" da. Gela taldetan banatu eta ikasgai bakoitzean lan bat aurkeztu beharko du taldeak. Lan horren barruan hainbat atal egongo dira. Esaterako, "URA" gaia gizarte ikasgai landu zutenean, lau atal aztertu zituzten: klima, ibaiak, erliebea eta hidrosfera. Taldean ikasle bakoitzak zer atali helduko dion erabakitzen dute, eta baita zer funtzio beteko duen ere (bozeramaile, idazkari, moderatzaile edo materialaren arduradun izango den). Eskola orduaren hasieran taldea biltzen da, eta bakoitzak egin beharreko lana planifikatu dute, nork bere eguneroko koadernoan apuntatu duen. Azpizgai bakoitza landu behar duten ikasleek aditu taldea osatu dute ("klima aditu taldea", "ibaiaren aditu taldea"...); aditu talde horietan

eraiki beharko dute ezagutza informazioa bilduz, garrantzitsuena ateraz, eztabaidatuz, adostuz. Ondoren, kontzeptuak argi gelditu diren ziurtatzeko, irakasleak kontrol txiki bat egingo dio ikasle bakoitzari. Azkenik, denak euren jatorrizko lan taldera itzuli eta ikasi dutena azalduko die taldekideei. Horrela, denen artean gaia osatuko dute, eta taldekideek ondo ulertu dutela ziurtatzeko kontrol bera egingo dute.

2. zikloa: matematikako proiektua

2. zikloan proiektuak mintegika proposatzen dituzte. Adibide gisa, hona matematika mintegiak 4. mailakoe-kin egin zuena: trigonometriari ikasitako aplikatzeko, lan praktikoa aurkeztu behar zuten taldeka. Institutuaren altuera eta pareko mendiaren altuera kalkulatu behar zuten, jolastokitik, eskutan eurek sortutako neurgailua soilik zutela. Azken erronka hori trigonometria lantzen hasi aurretik aurkeztu zitzaizkien ikasleei; hala, gelan ikasten zihozena praktikarako baliagarri ote zitzaizkien hausnartzen zuten etengabe, eta trigonometria gaiari ere zentzu bat ematen zioten.

Neurgailua, berriz, "teodolitoa" deritzana, teknologia gelan sortu zuten: egur zati bat hartu, bertan graduatzaile bat ipini (paperean 0°tik 180°ra marraz-

Eskema indibidualistak eta lehiakorak oso barneratuta ditugu, eta modu kooperatiboan lan egitea ikasi egiten den zerbait da, ez da gizarte honek berez sustatzen digun gaitasuna



Maite Borque, Arantxa Gabiria eta Maite Lasa.


tu eta huraxe itsatsi egurrari), graduak neurtzeko jarri hari bat zintzilik pisua duela, eta bisore moduan boligrafo bat erabili. Puntako ingeniari direla frogatu zuten ikasleek: institutuaren altuera kalkulatzeko, talde guztiak sartu ziren metro erdiren barruan.

Ikasleak ere irakasle

Lan kooperatiboak txipa aldatzea esan nahi du: ikustea pausoak mantso-ago ematen dituzten ikasleek lagunduta talde azkarrago doala, eta ez dela aurreratuta doazenezat "denbora galtze bat". "Interdependentzia positiboa" esaten dena, alegia: nik nire helburuak lortuko ditut, denok gure hel-

buruak lortzen ditugun heinean. Metodologia honek bideratzen du ikasleek berdinegandik ikastea; batak besteari azaltzen dionean, biak dira ikasten ari direnak, esplikatzeko ari den ikaslea bere eskema mentalak ziurtatzen ari baita, ideiak berrantolatzen. Lan kooperatiboari esker, ikasle guztiek hartzen dute noizbait irakasle rola, eta denek badugula taldeari zer irakatsi eta zer eskaini ikasten dute (taldean hain zehatz finkatuta egon ohi diren rola hautsiz, hein batean).

Irakasleek nabarmentzen dutenez, eskema indibidualistak eta lehiakorak oso barneratuta ditugu, ordea, eta modu kooperatiboan lan egitea, ikasi egi-





Lan kooperatiboan, ebaluatzeko hainbat modu daude eta horietako bat zera litzateke: bakoitzari baloratzea, batetik, pertsonalki ikasi duena, eta bestetik, taldearen helburuak lortu dituzten neurtzea

ten den zerbait da, ez da gizarte honek berez sustatzen digun gaitasun bat. Ikasleei kosta egiten zaie, hasieran, negoziatzea eta iritzi bat adostea; taldean nork bere prestigioa izaten du, autoritatea batzuei onartzen zaie, eta besteen ikuspegiekin bat egitea ez da erraza izaten. Baina, jakintsu etiketa dutenei ere on egiten die tarteka beste ikasle batzuk izatea ekarpena egiten dutenak edo gelaren aurrean onespina jasotzen dutenak. Bestetik, liskarrak sortzen dira kide bakoitzak lanarekiko duen ardura dela-eta: "hori zuk egin behar zenuen eta ez duzu bete". Kargu hartzen diete elkarri eta taldearen pisua edo lanaren ardura gehiena baten bizkar eror ez dadin euren zatia betetzeko exijitzen diete besteei.



Eta, nola ebaluatu?

Lan kooperatiboan, ebaluatzeko hainbat modu daude eta horietako bat zera litzateke: bakoitzari baloratzea, batetik, pertsonalki ikasi duena, eta bestetik, taldearen helburuak lortu dituzten. Alegia, taldearen lorpenek ere eragina izango lukete norberaren kalifikazioan. Horretarako, metodo batizaten da azterketa indibiduala egitea, eta taldekide guztiek gainditzea lortzen badute, kide bakoitzari bere azken nota igotzea, lortu dutelako helburua: taldeko denek ikastea, denek aurrera egitea. •

Irakasleek zer abantaila ikusten dizkiote metodologia honi?

- * Ikasleen partaidetza hobe da gelako jardueratan.
- * Irakasleek ikaskideengandik ere ikasten dute: berdinen arteko ikasketa.
- * Irakasleak hobetu dezake ikasle bakoitzaren jarraipena, behaketarako aukera gehiago du.
- * Irakasleak gelako aniztasunari ematen dion erantzuna hobetzen du.
- * Normalean garatzen ez diren gaitasunak lantzen dira: informazioa bilatzea, ulertzea, adostea, ahozko azalpena... Funtsean, ikasten ikasten dute.
- * Hizkuntza lantzeko metodologia hau klabea da: hitza ikasleari ematen zaio eta beraz, ahozko erabilera nahitaezko bihurtzen da, hizkuntza menperatzeko oinarritzkoena dena.

kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

Haur etorkinak integratzeko harrera gela

Salt-eko La Farga ikastetxeko esperientzia

Euskal Herrian izan berri dira Kataluniako Salt herriko La Farga ikastetxeko bi hezitzaile. BIGEk antolatutako II. erakus-truketopaketan hartu dute parte euren esperientziaren berri emanez. Ikasleen % 90 etorkina da beraien ikastetxean eta harrera gela berezi bat prestatuta daukate ikasle berri horientzat. Egiten duten lana eta prestatuta daukaten materiala gure eskoletara inportatzeko modukoa izan liteke, egin behar zaizkien egokitzapenak egin ondoren.

Katalunian kokatuta dago Salt herria, Girona ondoan, eta 25.000 biztanle ditu. Salten lau eskola publiko eta hiru pribatu daude, baina herriaren gunean eskola publiko bakarra dago, La Farga izenekoa. Herriaren erdigunean egotearen ondorioz, ikasle ugari matrikulatzen dira bertan, eta gehiengoak, gainera, etorkina da. Horien integrazioa sustatzeko **harrera gela** baten proiektua martxan jarrita daukate.

Ikastetxeak gaur egun 483 ikasle di-



Nekane GARMENDIA

Magisteritzan diplomaturia eta
Psikopedagogia ikaslea

tu, eta horietatik 376 etorkinak dira. Beraz, ikasle etorkinak % 78 izango lirateke. Hala ere, gainerako % 22 autoktonoak izan arren, familia asko kanpotarrak dira. Azken batean, etorkinen kopurua % 90 ingurura iritsiko litzateke. Edonola ere, kopuru horiek ez dira zurrunak, ikasturtean zehar gorabehera asko egoten baitira: batzuk joan, beste batzuk etorri... Horrela, ratioa 25 ikaslekoa izan arren, askotan 27-28 ikaslera ere iritsi daiteke, eskaera igo egiten baita eta ikuskaritzak behartu egiten dituzte bi edo hiru ikasle gehiagotea gelako.

Aurreko urtean ikasleen matrikularen inguruan aldaketa garrantzitsua egin zen herrian. Izan ere, ikasleak herrira iristean, beraien auzoan zegoen ikastetxera joaten ziren. Eta La Farga ikastetxea herriaren erdigunean dagoenez, ikasle etorkin ugari matrikulatzen ziren bertan (etorkinen ehuneko handiena zuen gainerako ikastetxeekin alderatuta). Beraz, aurreko ikasturtean matrikulazio batzorde bat eratu zen, eta horren bitartez ikasle etorkinak ikastetxe publikoetan zein pribatuetan banatzen dira, gehiago izanik publikoetan hartzen den kopurua. Matrikula batzorde hori udaletxeko ordezkariak, ikastetxeetako zuzendariak eta ikuskarriak osatzen dute, eta egiten dituzten bileratan antolatzen dute ikasturtean zehar etortzen diren ikasleak nora joan. Esaterako, maiatzeko lehen hastean La Farga ikastetxeko harrera gelara zazpi ikasle berri iritsi ziren.

Etorkinei erantzuteko antolaketa

Ikasleriaren hezkuntza hobetzeko hainbat aldaketak egin dira La Farga ikastetxean. Esaterako, 1997- 1998 ikasturtean hezkuntza proiektua sakon

Harrera gelan ikasleak talde txikitan banatzen dituzte eta ahozko hizkuntza lantzeari ematen diote lehentasuna, testuinguruan izango duten erabilpena aintzat hartuta

berrikusi zen, ikasle etorkinen integrazioari modu egokiagoan erantzuteko. Hau da, ikasleria modu indibidualean tratatzeko, ikastetxeak zituen baliabide propioekin **errefortzu linguistikoko** gela sortu zen. Hurrengo bi urtetan Hezkuntza Departamentuak baliabide gehiago eman zituen eta beste hainbat laguntza ezarri ziren. Hezkuntza zerbitzu bat ere bazegoen katalanaren ikaskuntzarako eta zerbitzu konpentsatzailerik ere bai. Ondorengo ikasturtean, 1998-1999an, sortu zen **harrera gela**. Hizkuntzen zerbitzua eta zerbitzu konpentsatzailerik kendu eta plan berri bat egin zen: hizkuntza, kulturalizazioa eta kohesio soziala (LIC). Horrekin, harrera gela sortu zen eta ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatzia lantzen dira batez ere bertan.

Harrera gelan eskolak egiten dituen jarduerak guztiak biltzen dira, ikaslea iristen denean ongi integratzeko, bai bera eta baita bere familia ere. Horrekin batera, beste hainbat proiektu ere lantzen ari dira ikastetxean, besteak beste: arlo bakoitzaren proiektu kurrikulurra ikasleen beharretara egokituta; eta ikastetxearen hizkuntz proiektua, hainbat hezkuntza ziklotan lantzen dena. La Farga ikastetxea Katalunian kokatuta dagoenez, bertako irakaskunt-

zako hizkuntza katalana da, nahiz eta gaztelania eta ingelesa ere ikasi.

Hezkuntza proiektu batetik abiatzen dira ikasturte guztian egingo dituzten aktibitateak antolatzeko. Testuinguru horretan, matrikulazio arrunteko ikasleak eta hezkuntza sisteman sartuko diren ikasle berriak heltzen dira ikastetxera. Hezkuntza sistema honetan sartuko diren ikasle berriak, ordena kronologiko baten arabera gela batean kokatzen dira, ondoren harrera gelara joaten dira eta behar badute baita Heziketa Bereziko gelara ere. Askotan ez da beharrezkoa, eta gela arruntean eta harrera gelan soilik egoten dira. Matrikula arrunteko ikasle ia denak gela arruntean egoten dira, eta bakar batzuk Heziketa Bereziko gelara joaten dira. Gela horietan proiektuen bidezko ikaskuntza prozesua jartzen dute martxan, baina hori bai, talde murrizak izaten dira. Izan ere, nahiz eta hizkuntza ezagutu, gatazka asko dituzten ikasleak izaten dira. Modu honetan, zenbat eta talde txikiago izan, orduan eta egokiago erantzun daiteke.

Ikasle berriak egokitzeko urratsak

Ikasturtean zehar etortzen diren ikasle berrien matrikulazioa zuzendaritzako taldeak gauzatzen du. Gero, zuzendaritza taldeak eta udaletxeak ikasleari hainbat informazio luzatzen die: ordutegia, eskola materiala, ikastetxearen funtzionamendu orokorra, nola eskatu beka ikasmaterialerako eta jangelarako, eta behar badute agiriak be-

tetzen ere laguntzen zaie. Azken batean, ikasleari laguntza handia eskaini behar zaio ikastetxean ondo sentituarazteko hasieratik.

Zuzendaritza taldetik harrera egin ostean, hasierako ebaluazioa egiten zaie. Ebaluazio hori aurreko ikasturtera arte psikopedagogoak egiten zuen txostenarekin egiten zen, baina orain, arazo garrantzitsuren bat edo behar asko izan dituzten ikasleei soilik egiten zaie txosten sozial hori. Gainerakoei harrera gelako Gemma Iglesias eta Consol Rivas hezitzaileek egiten dizkiete probak. "Hainbat ereduak probak daude: matematika, hizkuntza, esku abileziak, zer dakiten matematikari buruz euren hizkuntzan, beraien herrialdean eskolatuak izan diren, beraien herriko hizkuntza badakiten, frantsesa ezagutzen duten... Izan ere, magrebiar asko izaten dira, eta frantsesa baldin badakite euren ikaskuntza prozesua erraztu egiten da" kontatzen digute bi hezitzaileek. Ebaluazio hori eginda, ikaslea gela batean egokitzen da, baina horren aurretik elkarrizketa bat egiten dute. Elkarrizketa horretan gelako tutorea, harrera gelako irakasleak eta familia egoten dira. Askotan komunikazio arazoak sortzen da elkarrizketatan, eta bitarteko baten beharra izaten da ulertzeko eta hitz egiteko. Behin elkarrizketa egin ondoren eta ikastetxearen informazioa zabaldua, ikaslea gelan integratzen hasten da, lehen astean goiz edo arratsaldean eta ondorengo egun guztian. Ondoren, ikasleari jarraipeneko ebaluazioa egiten zaio, ikasleak egunero egi-



ten dituen lanaren kontrola eta jarraipena, hain zuzen ere.

Hiru hilabetetan egingako lanaren inguruan bilera bat egingo da, ebaluazioa egin aurretik irakaslearekin eta ikasleekin buruarekin haurren prozesu osoa baloratuko. "Bilera honetarako txosten batzuk egiten ditugu ikaslearen jarrera, portaera, hizkuntza-aren ulermena eta mintzaira, idazmena eta abarren inguruko informazioa emanez" dio Rivasek. Azken ebaluazioa ikasturtearen bukaeran egiten da.

"Harrera gelara joaten diren ikasleak talde txikitan banatzen ditugu" dio Iglesiasek. "Haur Hezkuntzakoekin 2-5 ikasleko taldeak egiten ditugu, goizez eta ordu erdiko saioak egiten ditugularik. Lehen Hezkuntzako haurren kasuan, gutxienez bi eta gehienez zortzi ikasleko taldeak ditugu, eta saioek 30-50 minutu inguru irauten dute". Lehen Hezkuntzako ikasleak astean 3-5 saio izaten dituzte harrera gelan katalanaren ezagutzarik ez badute. Plastika, Musika, Heziketa Fisikoa, Ingelesa edo Informatika bezalako ikasgaiak dituztenean ikasleak beraien gelan egoten dira, hizkuntzaren ezagutzaren behar gutxiagoko ikasgaiak baitira. Harrera gelarajoiaren diren ikasleak gehienez bi ikasturte egoten dira, baina hori aldatzea izaten da, batzuk ikasturte bat egin eta beraien gela arruntan integratzen baitira. "Gela arrunteko eta harreragelako artean informazio trukatzea ikaragarria behar da, ikaslearen prozesuaren onurarako" azpimarratzen du Rivasek.

Esku arteko materiala

Harrera gelan material askotarikoa erabiltzen dute eta horietako batzuk erakutsi zituzten Bilbon La Fargako hezitzaileek. Oso interesgarria izan zen material horiek ikustea eta bertaratu zirenek hainbat ideia praktikoa erabilgarri hartu zituzten. Euskal Herriko



ikasleekin matrikulatzen ari diren ikasle etorkinei euskaraz irakasteko baliagarriak izan daitezke. Eredutzat har daitezke euskarazko proiektuak eta material didaktikoak sortzeko.

Material informatikoaren artean zenbait web orriren berri eman zuten, batzuk katalanez eta beste batzuk gaztelaniaz daudenak: www.xtec.es, www.acollida.net, www.educarm.com.

Material komertzialen artean ahozko eta idatzizko hizkuntza ikasteko liburuak eta hiztegiak, ipuinak, irudiak eta jokoak erabiltzen dituzte. Deskripzioak, hiztegia, matematika eta beste hainbat gauza lantzeko aukera ematen dute.

Prestakuntza ikastaroetan erabiltzen dituzten euskariez ere baliatzen dira, eta nola ez, eurek egindakoez ere bai. Dituzten beharren eta helburuen arabera ipuinak, jokoak, irudiak, laminak, abestiak, olerkiak... prestatzen dituzte.

Helburuak hizkuntzari begira

Ikastetxe honetako harrera gelan egiten duten hezitzaileek hainbat helburu dituzte:

1.- Ikasleak katalana ezagutzen hastea, eta ulertzen eta hitz egiten hasteko gutxieneko kompetentzia linguistikoa ematen laguntzea. Hizkuntzaren lehendabiziko kontzeptuak ematea izango litzateke, erabilgarritasun gehiena duena irakatsiz.

2.- Oinarrizko lexikoa eta elkarrizketa egiturak eskuratzea, ikasleak ikastetxean eta inguruan komunikatzeko eta erlazionatzeko. Esaterako, gelan daudenean gaitasuna izan dezatela arkatza eskatzeko, komunera joateko edota inguruan erostetako egitera joateko.

3.- Ikaslea ikastetxearen eta gelaren

antolaketa eta funtzionamenduan integratzen erraztea. Izan ere, hizkuntza ikasteaz gain, beraien ohiturak aldatzen eta berrietara egokitzen hasi behar dute inguruaren antolaketa ulertuz.

4.- Ikasle berriaren eta beste ikaslearen arteko harremana eta komunikazioa indartzea, egokitze prozesua errazteko eta katalanaren ezagutza lortzeko, elkarrizketa egoera anitz sortuz. Hasieran gela arruntan edo beste gelatan dauden lurralde bereko haurrak elkartzen dira, hizkuntza berbera dutenak, ikasle iritsi berriei itzultzaile lanak egiteko. Ondoren, katalana ikasteko bideak ematen zaizkie, nahiz eta askotan gaztelania izaten den hizkuntza nagusia eta berau ikasten duten lehendabizi.

5.- Arlo kurrikularreko lexikoa eta egitura espezifikoak eskuratzea. Hori goi mailako ikasketatan egiten da, hainbat ikas arlotan erabiltzen diren hitzak jakiteko.

6.- Tradizio eta kultura katalana ezagutzea eta ikasle bakoitzaren errespetatzea. Bertako ohiturez gain, ikasle bakoitzak dituen hizkuntza eta kultura beste ikasleei eta irakasleei zabaltzea izango litzateke, bakoitzaren hizkuntza eta kultura errespetatuz eta berdintasunean baloratuz.

7.- Ahozko eta idatzizko ikaskuntza lantzen hastea.

Jakina, helburu horiek lortzeko metodologia egokia erabili behar da. La Farga ikastetxeak duen lehen irizpidea eta garrantzitsua ikaskuntza esanguratsua indartzea da. Horregatik, aktibitate sinpleak lantzen dituzte ahalik eta funtzionaltasun gehiena edukitzeko testuinguruan. Horretarako, materialaren aukeraketa ere oso garrantzitsua da. Gainera, aktibitateek izaera irekia eta ikaslearen ingurura zuzenduak izan behar dute, beraien parte hartzeko eta eurek daukaten iritzia adierazteko. Gelako aktibitate horiez gain, festa bat egiteak adibidez, ikasleek ikaskuntza osatzen eta aurreratzen laguntzen du, ikasten duten guztia testuinguruan praktikan jartzeko bidea baitute. •

Erakus-truke topaketa



Ikasle etorkinei euskara irakasteko proiektu eta material pedagogikoen erakus-truke topaketaren II. saioak arrakastaz burutu ziren Bilbon eta Donostian maiatzaren 6 eta 7an, hurrenez hurren.

Alde batetik, material ugari bildu zen eta bertaratu zirenek trukatzeko eta besteek egindako lanak ikusteko aukera izan zuten.

Beste aldetik, Kataluniatik etorritako hizlarien esperientziak ere gustura entzun zituzten parte-hartzaileek eta hainbat ideia bereganatu ere bai.

Aurrerantzean ere, horrelako saioak eta topaketak izanen dira.

Irakurleen txokoa

*** *Ikasle etorkinei euskara irakasteko material didaktikoen erakus-truke topaketan aurkezten diren materialak nola lor daitezke?***

Material horietako gutxi batzuk salgai daude merkatuan, baina besteak lortzeko, truke sarean sartu behar da; hau da, hurrengo topaketara norberak sortutako material didaktikoren bat eraman beharko da. Ez dago zertan material hori euskara irakasteko izan behar. Curriculumeko beste ikasgairen bat irakasteko ere izan daiteke, etorkinei begira egokitutako materiala ere izan daiteke, edota kultura eta hizkuntza aniztasunaren aurrean jarrera positiboak sortzekoa.

*** *Material horiek biltzeko gunerik (web, zentro, erakunde...) sortuko al da?***

Nahiz eta buruan darabilgun bilguneren bat sortzea material horiek bertan eskuragarri izateko, oraindik orain ez dago ezer ziurrik.

*** *Proiektu honek jarraipenik izango al du?***

Bai. Hurrengo topaketa Iruñean egitea espero dugu, urrian.

Txoko hau zeurea duzu, irakurle.

Egin galderak edo bidali erantzunak helbide hauetara:
itziaramayo@msn.com edo **aldizkaria@hikhasi.com**

Zure izena edo ikastetxearen izenarekin batera, helbide elektronikoa jartzea eskatzen dizugu, erantzuna emateko zurekin zuzenean harremanetan jar dadin nahi duen oro.

Harremanetarako bide berri honekin, dauzkagun kezka denon artean eta elkarri gure esperientziak kontatuz bidera ditzakegu. Anima zaituzte!

Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte-hartze
handiagorekin aberastu
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa
duen edonoren parte-
hartzea gustu handiz
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo
euska! hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.



Berriak ekaina

Orain, eskolaldirako euskal curriculumuma aztertzer



Eskolaldirako euskal curriculumaren aurkezpena Bilboko Euskalduna jauregian egin zen. Argazkian: Aitor Bilbao (Kristau Eskola), Abel Ariznabarreta (Hezkuntza sailburuordea), Anjeles Iztueta (Hezkuntza sailburua), Pedro Aranburu (EHIE) eta Juankar Aretxabaleta (Sortzen-Ikasbatuaz).

Iritsi da eskolaldirako euskal curriculumuma aztertzen hasteko garaia. Unibertsitatez kanpoko hezkuntza eragileek elkarlanean egindako proposamena aurkeztua dago, eta datorren ikasturtetik aurrera ikastetxeek eta hezkuntza eragileek berau aztertzeko, hausnartzeko, baloratzeko, eta ahal bada, hitzartzeko zeregina mahai gainean dute.

Bilboko Euskalduna jauregian egin zen eskolaldirako euskal curriculumaren oinarritzko txostenaren aurkezpena. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxeetako eta hezkuntza erakundeetako arduradunak bertaratu ziren proposamenaren nondik norakoak ezagutzera.

Anjeles Iztueta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak garbi azaldu zuen hasieran hemendik aurrera gutzien konpromisoa beharrezkoa izango dela. Berak hiru konpromiso hartu ditu administrazioaren izenean: curriculumaren inguruko partaidetza eta eztabaida ahalbidetzea; hortik sor daitezkeen proposamenak jaso eta horiei gutzietan ofizialtasuna ematea; eta euskal curriculumuma ezartzeko beharrezkoak diren bitartekoak eta giza baliabideen

gaineko plangintza egitea. Dena dela, proposamena garatzeko eta gauzatzeko ardura hezkuntza eragileena dela azpimarratu zuen.

Zentzu horretan, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak, Sortzen-Ikasbatuzek eta Kristau Eskolak beren konpromisoa berretsi zuten.

Egutegiari dagokionez, behin erakundeen eta hezkuntza eta gizarte eragileen esku dagoelarik, 2005-2006 ikasturtean curriculum oinarritzko eta komuna aztertu, definitu eta onartuko da. Komenigarria ikusten da 2006ko urtarilaren 31rako proposamena alderatua, baloratua eta hitzartua izatea. Era berean, curriculumuma abian jartzeko behar diren bitartekoak eta giza baliabideak planifikatu ere egingo da: irakasleen prestakuntza, material kurrikularra eta erreferentziatzko materiala...

Xedea, curriculumaren oinarritzko eduki komunak adostea da, ikastetxe bakoitzean osatzeko zabalik gera dadin, betiere, ikastetxearen hezkuntza proiektu espezifikoarekin bat eginez.

Behin hori eginda, zabaldu, aplikatu, ebaluatu eta eraberritu egin beharko da.


Dagoeneko hezkuntza alorreko hogeisei sektore eta erakundetik gora dira

proposamenarekin bat egin dutenak, eta zerrenda zabalik dago; bertan parte hartu nahi dutenek horretarako aukera badute.

Xedeak bi dira

Eskolaldirako euskal curriculumak bi xede nagusi ditu. Batetik, proposamena izenpetzen duten erakundeek eta hezkuntza zentroek konpromisoa hartu behar dute euskal curriculum oinarritzko eta komunari dagozkion edukiak beren hezkuntza proiektuetan sartzeko, bai eta derrigorrezko hezkuntza bukatutakoan haiek ebaluatzeko ere. Bestetik, hezkuntza proiektuaren planteamendua hobetzeko plataforma izan behar du, euskal gizartearen, gizarte europarraren eta gizarte unibertsalaren beharretara egokitzeko eta ikasleek emaitza onak lortzea sustatzeko.

Hori aintzat hartuta, eskolaldirako euskal curriculumak bi behar nagusiri erantzun nahi die. Hasteko, euskal kulturaren transmisioa ziurtatzeko beharri. Eta bigarrenik, Europan integratutako euskal gizarte batean eta munduarekin elkarreaginean bizi ahal izateko beharrezkoak diren kompetentziak ere



Euskal curriculuma XXI. mendeko euskal herritarra prestatzen

“Eskolak maiz XIX. mendeko edukiak irakasten ditu, XX. mendeko irakasleekin, XXI. mendeko ikasleei.”

Esaldi labur honetan garbi azaltzen da eskolaren krisia eta garai berrietara moldatu ezina. Izan ere, oro har, XIX. mendeko erakundea izanik, denbora honetan zehar nahiz eta gorabehera batzuk izan, oinarriko trazutan ez da aldaketa nabarmenik eman.

Halaxe, gure ikastetxeetan oraindik ere, “XIX. mendeko eduki teorikoak”, hau da, egungo errealitatearekin harreman gutti dutenak eta garrantzitsuagoa dena, egungo errealitatea interpretatzeko eta baldintzatzeko baliagarriak ez direnak jorratzen dira. Ikasleari eguneroko bizitzak sor diezazkiokeen arazoei aurre egiteko inolako trebetasunik eskaini gabe eta eskolaren eta gizarteko errealitatearen arteko disoziazioa eta distantzia areagotuz.

Hala ere, zer irakasten den bezainbesteko garrantzia du, nola eta inplizituki nork irakasten duen. Pedagogikoki ere ez da inolako hausnarketarik egin azken urte hauetan eta oraindik ere, ikuspegi teknologikoa lehenesten da gure gelatan, hau da, irakaskuntza memoristikoa eta errepikakorra gainbaloratzen eta indartzen dira. Ikaslea objektu gisa irudikatzen delarik askotan, autoritarismoari bide emanez. Irakasle eta ikasleen arteko erlazioak hierarkikoak dira askotan. Garaia da ikasleei subjektu izaera aitortzeko eta hezkuntzan euren interesak eta eskubideak bermatzen hasteko.

XXI. mendeko pertsonak hezi behar ditugu eta, horretarako, hezkuntzaren formulazioa birformulatu beharko dugu ikuspegi integratzaile eta global batetik egituratuz eta hezkuntzako agenteen funtzioa birdefinituz.

XXI. mendeko hezkuntzaren zantzuak

Orain arteko ibilbidean jauzi kualitativo bat eman ahal izateko, hezkuntzaren formulazio klasikoa moldatu beharko litzateke. Eduki teorikoak praktikan gauzatzera bideratuta irakatsi beharko liriteke. Horre-

tarako, nahitaezkoa da ikasleari trebetasun edo abilezia batzuen jabe egiten laguntzea. Esaterako, informazioa izatea bezain garrantzitsua da informazioa non eta nola bilatu jakitea. Era berean, informazioaren mende honetan, edukien kalitatea eta iturriak ebaluatzeak irizpideak finkatzea beharrezkoa izango dugu. Informazioa kritikoki interpretatu eta garatzeko gai izan beharko genuke, azkartasunaren eta bat-batekotasunaren aitzakian landu gabeko informazioa baita lehenesten dena. Era berean, etengabe ikasten eta formatzen joan beharko dugu ematen ari diren aldaketen, bereziki teknologikoak, itzalean eta ondorioz gizartean indargabetuak gera ez gaitezen. Beraz, eta Harold Benjamin-ek idatzi zuena plaza honetara ekarriaz, *“sabías que la esencia de la verdadera enseñanza es la in-temporalidad, es algo que permanece a través de las condiciones cambiantes, como una roca firmemente plantada en medio de un tumultuoso torrente”*.

Ikaskuntzaren esentziaz ari garenean, zentzu platonikoan, leku partikularrak gainditzen, **unibertsalak**, diren gaitasunak ari gara, hots, bizitzeko beharrezkoak ditugun konpetentziez. Konpetentziek, tokian-tokiko edukiz eta egunerokotasunari loturik jakin beharreko estrategia ezberdinenetan oinarritu beharko lukete, aniztasuna eta berdintasuna bermatzeko. Bada, euskal curriculumaren diseinuan konpetentziei garrantzi kapitala ematea pozgarria ezetik beharrezkoa dela irizten dut.

Errealitatearen gordintasanak bidea ireki digu hezkuntzaren formulazio berriari ekiteko. XXI. menderako baliagarria izango den formulazioa behar dugu, *teoria* eta *praxiaren* dialektikaren baitan eman beharko dena. Objektu izatetik, historiaren subjektu izaterako jauzia eman behar da, horretarako beharrezkoa izanik errealitatea modu kontzientean bizitzea eta errealitate bera baldintzatzeko duten gaitasunak izatea.

Ondorioz, Euskal Curriculum a etorkizunari begiratzen dion kultur ibilbidea izanik, aipatu gogoetaren zurrunbiloan erai-

kitzen ari da, hots, XXI. menderako egokia eta baliagarria izango dena eta XXI. mendeko euskal herritarra trebatzeko asmoarekin. Horren haritik, curriculumaren egituran zutabe nagusiak ez dira ezagutzak. Gizaki bezala (dimentsio guztietan) garatzeko gaitasunak dira curriculumaren oinarriak: **konpetentziak**. Egunerokoan sortzen zaizkigun arazoei erantzun bat emateko baliagarriak izango zaizkion gaitasunak ahalbidetu behar zaizkio ikasleari: errealitatea interpretatzeko, kritikatzeko, baldintzatzeko eta eraldatzeko. Hezkuntzak ekintzan, praktikan baitu xedea. Konpetentziak, errealitate hurbilari lotzen zaizkio modu dinamikoan.

Hezkuntzaren konpetentzia orokorrak finkatzeko, UNESCOko informea, J. Delors-ek egin, izan da Euskal Curriculumaren bizkarrezurra. Bertan hezkuntzaren lau zutabeak finkatzen dira: ikasten eta pentsatzen ikasi, egiten eta ekiten ikasi, elkarrekin/besteekin batera bizitzen ikasi eta izaten ikasi. Delors-ek hezkuntzaren lau zutabe definitzen dizkigu, XXI. mendeko pertsona modu egokian hezteko. Nolabait esateko, bizitzak aurrera egin ahal pertsona bakoitzarentzat etorkizuneko ezagutzaren zutabeak izango diren konpetentzien ikasketan oinarritu behar du hezkuntzak.

Delors-ek, komunikazioaren garrantzia, zehar moduan aipatzen badu ere, Euskal Curriculumean modu espezifikoa lantzeko beharra nagusitzen da. XXI. mendeko euskaldunak komunikatzeko gaitasun anitzetan ere trebatua izan beharko baitu modu egoki eta eroso batean bizitzeko.

Egitasmo hau egikaritu behar dugu. Teorikoki definitzearekin batera Euskal Herriko ikastetxe guztietara zabalduz. Eta horretarako, guztion laguntza ezinbestekoa izango da, bai egitasmoari ekarpenak egiten baita aplikazio mementoan ere. Izan ere, eta ez dezagun ahaztu, biharko Euskal Herriaz ari gara.

Ruben Iglesias San Sebastian

UEUko Euskal Curriculum a batzordeko eta EHBeko kidea

Argitalpenak



Aisia biziz

2005eko negua, 3. alea
URTXINTXA ESKOLA


Azken alea haur antzerkiari eskaintzen dio *Aisia biziz* aldizkariak. Euskarazko haur antzerki taldeen gida dator aldizkarian, eta horietako zenbaiten esperientziaren berri ematen du. Malabarrak, makilajea eta mozorroa lantzeko tailerrak ere proposatzen dira. Elkarizketa nagusia Kukubiltxoko kide Josu Camarari egin diote. Betiko moduan, ibilaldi bat proposatzen da, eta oraingoan Ilarduira



Matematikari buruzko gogoetak

Juan Ignazio Abrisketa,
Manu Arregi eta
Alfontso Mtz. Lizarduikoa
GAIAK


Liburuan aritmetikaren unibertsoa aztertzen da, zenbaki irrazional eta lehenen enigmatan sakonduz. Errealitateak matematikarekiko duen harreman estua ere aztergaitzat hartzen da eta beste matematikari berri ematen da: japoniarra, Ramanujanen matematika magikoa eta fraktalen teoria •



CFF-2

Ahanzturaren birusa
IKASTOLEN ELKARTEA

“Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Ondare Arkitektonikoa” lanean oinarrituta, gazteentzat hiru CD-ROM sortu ditu Ikastolen Elkartek: “Jakinduriaren putzua”, “Rikstum tenientea” eta “Loperen zorigaitza”. Hiruak ere abentura jokoak dira, eta espazio-untzien aroan kokatuta daude, 2.751. urtean. Ahanzturaren birusari aurre egitea izango da misioa, horretarako gure iraganera bidaiatuz •



Donostia-Baiona Euskal Eurohiria

Askoren artean
EREIN

2. DBHko gazteentzako unitate didaktiko honen xedea da gazteei gure lurraldea nolakoa den jakiten laguntzea, Donostia-Baiona Eurohiria ardatz harturik. Eurohiri horren geografia, historia, ekonomia, kultura eta hizkuntza lantzen dira. Liburuak euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez dago. Argazkiz lagundutako maketazio erakargarria du •



Mila esker andereño

Iñaki Amezua Pellés
OSTOA

Hastapeneko ikastoletan ibilitako andereñoekin solasean aritu ondoren, liburu goxo hau atondu du egileak. 50-60ko hamarkadetan euskal hezkuntza eredu baten alde lan egiten zuten emakume haien pasadizoak eta testigantzak jasotzen dira. Garai hartako kronika izateaz gain, euskal gizarteak jasan duen aldaketaren erretratutziki bat ere bada liburuak •



Atxiki sekretua

Patxi Zubizarreta
ELKAR

Graziana sorginaren eskuliburu honetan sorginen mundua zer den azaltzen da: ipuinak, kontakizun harri-garriak, sorgintzako formulak abestiak... Graziana sorginak bere bizitza luzeko sekretuak kontatzen ditu, beste inori ez kontatzeko esanez. Hortik dator liburuaren izenburua: atxiki sekretua. Elena Odriozola aritu da Patxi Zubizarretaren lana ilustratzen •

Udako Topaketak: 500 irakasleren bilgune

Izena emateko epea pasa bazaizu,
oraindik bada lekua zenbait
ikastarotan

VI. Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoetan, hezkuntza gaietaz buruzko ikastarok gauzatuko dira aurten, denak euskaraz. Horietatik, 11 erabat berriak dira. Ikasle paperean txankletatan etorriko direnak, berriz, hezkuntza munduko 500 partaide izango dira. Matrikulazioa egiteko gogoz gelditu direnak, oraindik ere aurkituko dute zirikituren bat zenbait ikastarotan. Topaketak uztailaren 4, 5 eta 6an izango dira, Donostian. Ikastaro guztiak goizez izango dira, eta arratsaldeetan saio libreak, denentzat aukeran.

Aurten eskaera gehien zer ikastarok izan duten ikusi, eta horixe izan daiteke ikasturte honen erretratu edo "fotofinish" argiena: "Harremanak gelan" ikastaroa, "Adimen emozionala" eta "Dislexia" izan dira eskaera gehien jaso dutenak. Ikasturte honek gizartean piztu dituen alarma bi dira, nonbait: *bullying*-a batetik, eta bestetik emozioen gaiari eman berri zaion garrantzia. Iazko ikasturtean kasik esanahia ezagutu ere ez, eta aurtengoan denen ahotan ibili diren hitzak dira.

11 ikastaro berriez gain, halaber, hezitzaileen oso gustuko izaten jarraitzen

duten beste ikastaro batzuk ere badira; hala nola "Musika ordenagailuz", "Jolas kooperatiboak", "Psikomotrizitatea" edo "Heriotza heziketan". Interesen artean denetik dago, beraz.

Arratsaldeetan, saio libreak

Ikastarotetan matrikulatu edo ez, arratsaldeko saioetan nahi duen edonork parte har dezake. Pedagogia Fakultatean izango dira, arratsaldeko 16:00etatik aurrera.

Uztailak 4, astelehena "Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumaren aurkezpena"

Zer da? Zertan eragingo digu? Nola ezarriko da? Galdera horiei erantzun die Pedro Mari Legarretak, Euskal Curriculumeko Zuzendaritza Teknikoko kideak.

Uztailak 5, asteartea "Ilargiaren sekretua" filmaren material didaktikoaren aurkezpena (DVDa)

Film bat nola egiten den erakusteko material didaktikoa sortu du Hik Hasi, DVD euskarrian. Beronen azalpena egingo dute Alicia Garaialdek (Filmaren zuzendaria) eta Joxe Mari Auzmendik (Hik Hasiko kideak).



Ipuin kontaketa

Pello Añorga kontalariak, ipuin sorta batez azalduko du bere ibilbidean zehar haurrei kontatzeko zer modu erabili izan dituen.

Zein ikastarotan eman dezaket oraindik izena?

Matrikulazio epea bukatu den arren, badira ikastaro batzuk kopuru mugaturik ez dutenak, edota oraindik lekua badutenak. Beraz, horietakoren bat egin nahiko bazenu, izena emazu ahal bezain azkar. Ikastaro hauetan dago tokia:

- Neobook
- Power Point
- Aldizkari tailerra: ikastetxeen webguneak Berrian
- Antzerki clown-a
- Jolas kooperatiboak
- Gorputz jarreraren heziketa
- Ahozko hizkuntza
- Disgrafia
- Euskararen erabilera nola sustatu
- Artearen txokoa
- Heriotza heziketan
- Estresa irakaskuntzan
- Ikas-estilo eta estrategiak

Izena emateko, jo gure web orrira (hikhasi@hikhasi.com) edo deitu telefonoz: 943 371 408.

UEUren 33. udako ikastaroak

Beste behin ere, UEUk aukera zabalak eskaini du udako ikastaroetan honako gaien inguruan: antzerkilaritza, GAIN, hizkuntzalaritza, literatura, musika, natur zientziak, osasuna, pedagogia, psikologia, sexologia, talaiatik, GAINDEGIA, antropologia, arkitektura, artea, historia, eusko kultur gaiak, filosofia, informatika, kazetaritza, kimika, soziologia, soziolinguistika, yoga, ekonomia eta bertsolaritza.

Miarritzen eta Iruñean egiteaz gain, aurten Eibarren ere izango dira ikastaroak.

Miarritzen, uztailaren 4tik 8ra
Eibarren uztailaren 11tik 15era
Iruñean uztailaren 18tik 22ra

Matrikulatzeko epea ekainaren 19an bukatzen da.

Informazio gehiagorako:
www.ueu.org

Euskal curriculuma eta testu liburuak



Begoña Bilbaok, Karmele Perez Urrazak eta Gurutze Ezkurdiak liburu banatan argitaratu dute euren tesia *Utriusque Vasconiae* argitaletxearekin. Guztiek ere euskal curriculuma eta testu liburuen edukiak aztertu dituzte, bakoitzak arlo desberdinetik: *Curriculum eta kultura Euskal Herrian*, *Curriculum eta testu liburua Euskal Herrian* eta *Curriculum eta ingurunea Euskal Herrian*, hurrenez hurren.

Horrez gain, hirurek egin duten ikerketa prozesu zabalak beste emaitza bat ere eman du: *Euskal curriculumala euskal dimentsioa curriculumean?* liburua. Curriculum eta testu liburuen edukiak aztertu ondoren, eduki horiek ingurune hurbilarekiko agertzen duten lotura erakusten da, gehien zaintzen dutenak Euskal Herrian argitaratuak direla frogatuz. Izenburuari jarraiki, datu zehatzak eskaintzen dira.

Sareanek autonomia gehiago eskatzen du ikastetxeentzat

Sarean elkarteak XVIII. topaketak egin berri ditu Donostian. 100 lagun inguruk hartu du parte "Nahi dugun eskola mota" aztergai nagusiaren inguruan aritzeko.

Topaketa hauetan ikastetxeen autonomiaz aritu dira batez ere. Gaur egun ikastetxe publikoek daukaten autonomia baino gehiago eskatzen dute, hainbat arlotan mugatuta ikusten baitira, besteak beste: ekonomian eta azpiegiturretan, antolaketan, pedagogia arloan eta langileen kudeaketan. Pedagogia arloan, esate baterako, hainbat proiektu garatzeko baliabideen faltan aurkitzen dira. Azpiegiturrei dagokionez, obra handiak egiteko garaian oso gutxitan hartzen da aintzat ikastetxeen

iritzia eta teknikariek bere aldetik jarduten dute. Ez dago inplikaturako alderdi guztiak bat egitera eramaten dituen protokolorik. Baliabide ekonomikoaren kasuan, ikastetxeek ez dituzte ezagutzen diru banaketarako erabiltzen diren moduluak eta irizpideak. Zentzu horretan, ezagutza gehiago izatea eskatzen dute, diru publikoa dela jakinik.

Horregatik guztiagatik, autonomia gehiago eskatzen dute, betiere ekitate bermatuz. Hau da, zerbitzuaren kalitateak gutxieneko batzuk izan behar ditu guztientzat. Jakitun dira autonomiak justifikatua eta nolabait kontrolatua izan behar duela, baina malguta, egoera eta behar partikularri hobeto erantzuteko.

Lehen Hezkuntzako ikasleen % 5,8k *bullying*-a jasaten du

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak *bullying*-ari buruzko datu berriak eman ditu ezagutzera. Lehen Hezkuntzako ikasleen artean % 5,8k jasan du *bullying*-a. Ikasmilak gora egin ahala, kopurua igo egiten da Lehen Hezkuntzan (5. mailan % 5,5 eta 6. mailan % 6,2); DBHn, ostera, jaitsi egiten da (4. DBHn % 2,35).

EAEko 88 ikastetxetako 2.851 ikasleri egin zitzaizen galdeketa aurtengo otsaila eta martxo bitartean. Sei portara hauek jasan ote dituzten galdetu zitzaizen: ostikoak, jipoitu egingo dutelako mehatxua, dirua emateko eskatzea, min egiten saiatzea, zerbait puskatzea eta jotzen saiatzea.

Biktimen % 14,3k inori ez diola ezer esaten aitortu du. Tratu txar gehienak jolastokian gertatzen dira, bai Lehen Hezkuntzan eta bai DBHn. Gehienek

irainak eta ezizenak jartzea jasaten dute. Lehen Hezkuntzan joak ere DBHn baino gehiago dira: % 3,3 eta % 1,2 hurrenez hurren. Gehienak ez dira beldurrez joaten ikastetxera (% 63,9), baina % 3,3 sarritan joaten da beldurtuta, eta % 1,2 ia egunero. Zeri diote beldurra? Ikasleen % 37,6k ikaskideei eta % 37,1ek lanei eta notei.

Jazarleen kasuan, ez dago alde handirik neska edo mutila izan. DBHn ohikoena gaizki esaka aritzea, iraintzea eta kasurik ez egitea dira. Lehen Hezkuntzan ere gertatzen da, baina gutxiago (erdia gutxi gorabehera).


Lekukoen datuei dagokienez, Lehen Hezkuntzan ikasleen % 32,2k ikusi du noizbait norbait beste bat jotzen; DBHn ehuneko hori dezente txikiagoa da, % 19,4.

Ikasleen eta irakasleen arteko ha-

rremana ere aztertu dute, eta hamarretik zortzik dio irakasleak ondo edo oso ondo tratatzen duela. Jazarpenen bat gertatzen denean, irakasle gehienek (% 38,5) jazarleak zigortu egiten dituztela esan dute. % 28k dio ez dakiela irakasleak zerbait egiten duen edo ez, eta % 25k dio jazarpena mozteko esku hartzen duela.

Datuak ezagutu ondoren, Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburuak aditzera eman du eskolak bakarrik ezin diola aurre egin *bullying*-ari eta denok esku hartu behar dugula.

Nafarroan *Bullying, ireki itzazu begiak* informazio kanpaina martxan dago. 900 841 551 telefonoa eta convive@cfnavarra.es e-posta bitartekoak zabalik daude kontsultak jasotzeko eta jarraipena egiteko.



Ikastetxe publikoetako norbanako karguen hautaketarako dekretuari buruzko zuzendarien adierazpena

Hezkuntza Sailak Zuzendaritzak hautatzeko Dekretua publikatzea erabaki du. BIHE elkarteak gai honetaz azken urte hauetan egindako hausnarketak eta ekarpenak ez datoz bat Dekretuak garatzen duen ereduarekin. Berezi, azken hilabetetan gure proposamenen bitartez zuzendaritza karguen lan baldintzak, ardurak, eta abar hobetzeko egin ditugun ahalegin guztiak ez dute inolako islarik izan dekretu horren garapenean. Pentsatzen dugu, Dekretu hori ez dela izango behar dugun tresna Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako zuzendaritzen egoerari aurre egiteko.

Hezkuntza Sailak bultzatu nahi di-

tuen lehentasunezko ildoan garapena bermatzeko ereduak garatu beharra dago. Zaila egiten zaigu, esate baterako, hizkuntza normalkuntzaren eta eleaztasunaren bidean, garatu beharreko programak ikastetxetan eratzea eta eraginkorrak bihurtzea zuzendaritza taldeen iraunkortasuna bultzatzeko inolako neurririk hartu gabe. Neurri berean, eskola inklusiboaren erronkak Dekretu horrek gauzatzen ez duen zuzendaritza taldeen lidergoa eskatzen du.

Argitaratu den Dekretuarekin oso zaila egingo da zuzendaritza taldeen egonkortasuna bermatzea eta talde berriak erakartzea, eta ondorioz Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoak zu-

zendaritza proiektu eraginkorrak eragiteko arazoekin jarraituko dugu.

Egoera horren aurrean zera eskatzen dugu:

- Zuzendaritza aukeraketarako Dekretu berri batean, aipatutako helburu guztiak betetzeko ezinbestekoa den zuzendaritza ereduaren marko juridiko berria zehaztea.

- Zuzendaritza jarduna errazteko eta hobetzeko egiturazko baldintzak finkatzea (prestakuntza, pizgarriak, ordutegi kreditu egokia...).

Bigarren Hezkuntzako Institutuetako zuzendarien BIHE Elkarteak

Muga guztien gainera ...euskaraz!

Elortzibarko ikastola proiektua

Nafarroako 1986ko Euskararen Legeak zonaldeak sailkatu zituen, eta zonalde euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna bereizi zituen. Zonalde ez euskaldunean egoteak esan nahi du, sare publikoan ez dela D eredia eskaintzen, eta ikastolak sortuz gero, alegalak direla. Une honetan eskola alegalak dira Biana, Iodosa-Sartaguda, Tuteria eta Irunberrikoak.

Elortzibarrek ere D eredia nahi du, eta Gobernua laguntzeko prest ez badago, eurek eraikitzea erabaki dute. Ikastola Batzordea sortu dute, guraso eta laguntzaile espezializatuekin. Hasteko, ikerketa soziologiko eta demografiko bat egin zuten, bideragarritasuna ikusteko. Ikerketa Marina Lopez batzordekideak zuzendu du, Nafarroako Gobernuaren Estatistika Sailean teknikari denak. Elortzibar zo-



Roldan Jimeno, Elortzibar Ikastola Batzordeko zuzendaria.

naldearen nahia baieztatu du ikerketak, baita bilera informatiboetara hurbildu den guraso kopuruak ere.

Ikastola Batzordeko zuzendariak azaldu digu prozesua zertan den. Roldan Jimeno da zuzendaria, tiebatarra. Nafarroako Unibertsitate Publikoan Zuzenbide irakasle ere bada. Legearen argi-ilurak ederki ezagutzen ditu.

Elortzibar zonaldea Iruñeritik gertu dago eta herriotara hedatzen da geografikoki: Noain-Elortzibar, Bariain, Tiebas, Izarbe eta Orba ibarrak, Elo, Ibargoiti eta Untziti ibarrak, Galar zendea hegoaldea eta Aranguren ibarreko Mutiloagoiti eta Mutiloabeiti. Zonaldeak inbutu moduan egiten du Iruñerantz, eta inbutuko muturra Noain da. Horregatik, Noain litzateke lekurik egokiena ikastola jartzeko.

Legeari dagokionez, zonalde ez-euskaldunean sartu zuten Elortzibar. Beraz, une honetan bi aukera dituzte zonaldeko haurrek euskaraz ikasteko: Iruñeko San Fermin ikastolara joatea edota sare publikoan Iruñeko Hegape ikastolara joatea. Arazo bi daude, ordea. Bata da Iruñeraino mugitu beharra egunero. Ikasleontzat autobusak badaude, baina Noaindik irteten dira, eta beraz, beste herrietako gurasoek autoz eraman behar dituzte haurrak Noaineraino, edota Iruñeraino bestela. Askok, azkenean, bere haurra herriko erdal eskolan uztea erabakitzen du. "Eta horietako guraso asko euskaltzaleak dira -adierazi du Roldan Jimenok-, baina sakrifizio handia da autoz egunero Iruñeraino eramatea haurrak. Eta horrela, ehunka haur ari dira galtzen euskararentzat. Horregatik ezarri zuten zonalde ez-euskaldunaren muga justu hor, bazekitelako zer lortuko zuten herrian bertan D eredia egotea eragotziz gero".

Roldan Jimeno: “Orain ikastola egiteko memento historiko-demografiko batean gaude; orain egiten ez badugu trenan pasako zaigu, eta etorkizunerako haurrak galduko dira euskararentzat, izugarri”

Bigarren arazoa zera da: Iruñerriko ikastolak une honetan gainezka daudela. Iaz 60 haurretik gora utzi behar izan zituzten kanpoan. Eta are larriagoa dena: Elortzibar zonaldean, biztanleria bikoiztu egingo da bost urte barrurako (Iruñerriko bikote gazteek Elortzibarrrerako joera dute, zoruaren prezioa dela-eta). Alegia, haur booma espero dela zonaldean. Gakoa horixe da Roldanentzat: “Orain ikastola egiteko memento historiko-demografiko batean gaude; orain egiten ez badugu trenan pasako zaigu, eta etorkizunerako haurrak galduko dira euskararentzat, izugarri”.

Zonalde ez-euskalduna mugatzeko irizpideak erabat politikoak izan ziren

1986ko Legean zonaldeak mugatzeko irizpideak oso subjektiboak ziren. Hala dio Roldan Jimenok, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbide irakaslea: “Zonaldeak zehaztearena eztabaida politikoa izan zen. Irizpide soziolinguistikoak baziren, batez ere zonalde euskalduna eta mistoa bereizterakoan. Baina gero, zonalde mistoaren eta ez-euskaldunaren artean, bereizketa oso subjektiboa izan zen”. Gares jartzen du horren adibide: “Gares zonalde mistoan sartu zuten, eta Garesen ez zegoen euskaldunik. Baina politikoki Garesen karlismoak zeukan garrantzia (e-

ta karlismoa oso euskaltzalea da), eta baita abertzaletasunak ere (hautagai independenteak dira, baina abertzaleak). Pisu politiko horregatik sartu zuten zonalde mistoan eta ez, behintzat, euskaldun kopuruan oinarrituta”. Elortzibar zonalde ez-euskaldunean sartzeko zergatiak argi ditu Roldanek: “Batetik, gure zonaldean indar politiko sendorik ez zegoelako, baina batez ere, Iruñeko hegoaldean euskarari harresia jartzeko”. Izan ere, Elortzibarren D eredia jartzen bada, euskarak kilometro piloa irabaziko lituzke hegoalderantz, ia-ia Tafallaraino helduko litzateke, eta horixe da Nafarroako Gobernuak jarri nahi duen harresia.

Behin bereizketa lege bihurtuta, lege da bere eragin guztiakin: gaur Garesko haur erdiak D eredurajoaten dira, eta beraz, etorkizunean Garesen euskalduna izateko aukera handiagoak ditu. Elortzibar, aldiz, herritarrek egin behar duten gainesfortzuaren mende dago.

Alderdi politikoek esan dioten

Oso memento berezian gaude: politikoki, parlamentuan hezkuntzaren inguruko txostenari ekin zaio ikasturte honetan. Eta Ikastolen Elkartearen negoziaketan ari da Nafarroako Gobernuarekin eremu ez-euskaldunean dauken ikastolak legeztatzeko.

Elortzibar Ikastola Batzordea eratu zenean, arazo politiko baten ondorioz



sortu zenez, alderdi politiko guztiakin hitz egin zuten, parlamentuan egon edo ez (baita Karlistak edo Batzarrerekin ere, txikienak aipatzearen). Oso kontent gaude elkarrizketok eman dutenarekin. Alderdi abertzaleak erabat alde agertu dira. Ezker Batuaren jarrera ikastolaren aldekoa da, baldin eta legea aldatzen ez bada; lege horren diskriminazioa dela-eta, ikastola sortzea oso logikoa ikusten dute, baina Elortzibar zonalde mistoan sartuko balitz, sare publikoko D eredia bultzatzea izango litzateke Ezker Batuaren jarrera. CDNkoek ikastola egitera animatzen dituzte, “eta egia esanda, ideia onak eman dizkigute” gaineratzen du Roldanek. UPNkoek “ongi tratatu” dituztela dio, eta ez omen diete ezer zehatzik erantzun bitan elkartuagatik; “baina guri hori ona iruditu zaigu, gutxienez kontra ere ez direlako azaldu, aurrez aurre behintzat. Ulertzen dute arazoa, eta





ulertzen dute gu hor egotea D eredu eskatzen”.

Nafarroan dagoen hezkuntza plangintza guztia aldatzeko gakoa Alderdi Sozialistak du une honetan. Eta Alderdi Sozialistan bi jarrera kontrajarri daude: jarrera euskaltzaleagoa dutenek legea aldatu behar dela aldarrikatzen dute, eta eremu mistoa zabaltzeko behar dela merindade buruetan (Tafallan, Zangozan eta Tuteran). Roldan Jimenorentzat oso esanguratsua izan zen Alderdi Sozialistako Hezkuntza gaietako parlamentariak, Carlos Cristobalek, esan ziena: “zuek ez ezazue inola ere ikastolaren proiektua baztertu, ustezko eredu publiko bat sortu behar delako -esan zigun Carlos Cristobalek-, zuek jarrai ezazue, kontua ez baitago batere argi eta auskalo noiz egingo den bestea”. Alderdi Sozialistan euskaltzaleenetakoa da bera. Baina partiduan beste alde bat guztiz kontra dago, eta legea bere horretan uztea nahi dute. Alderdi Sozialistaren barruan botoetan erdi eta erdi dira bataren eta bestearen aldekoak.

Nafarroako parlamentuan ere izan zen Elortzibar Ikastola Batzordea, eta txosten bat aurkeztu zuen Hezkuntza Batzordearen aurrean. Ordurako bilduak ziren lehendik alderdi politiko bakoitzarekin, eta beraz, parlamentutik ez zuten iritzi edo inpresio berririk atera; baina behintzat, alderdi bakoitzaren jarrera zein zen publikoki azalzeatzela lortu zuten. Eta kasu konkretu bat mahai gainean jartzea, hori da lortu zutena: “jada gurasoen eskaera daukate mahai gainean, elkarte konkretu bat dago hor, eta inkestak eginak dituzte. Hain eskandalagarria da gure egoera,

legearen aldaketarako ere adibide esanguratsua dela”.

Elortzibar zonalde mistoan sartuko balitz, zer?

Elortzibar eremu mistoan sartzea litzateke idealena Roldan Jimenoren hitzetan, “ez hezkuntzagatik soilik, administrazioagatik eta, azken finean, hiritarren eskubide linguistikoengatik, oro har”. Baina, ezin dira hori noiz lortuko zain egon: “gu une historiko-demografiko batean gaude, eta horri erantzun bat eman behar diogu; baina orain”. Ezin dira Nafarroako Gobernuak zer erabakiko duen zain egon; Parlamentuak zonifikazio aldaketaren aldeko apustua egingo balu ere, hori ez da Nafarroako Gobernuarentzat loteslea edo binkulantea; alegia, Gobernuak berdin erabaki dezakeela lehengoan jarraitzea. “Dinamika horretan sartzen bagara, Elortzibarren D eredu publikoa zabaltzen denerako 5 urte pasa daitezke, eta denbora hori gehiegi da”.

Euren proiektuarekin aurrera egitea erabaki dute. 0-3 urteko zikloarekin hasiko dira; hala, txarrenera jota proiektua zapuztuko balitz ere, 0-3 urteko harrobi hori Iruñerriko ikastolentzat ere mesedegarri litzateke. Gainera, horrela 3 urteko epea dute egoera politikoak norantz egiten duen ikusteko. 0-3 etapa 2006. urterako irekitzea da euren asmoa. Behin 0-3 etapa abian jarrita, orduantxe sortuko balitz D eredu

publikoa “poztu egingo ginategi”, dio Roldanek, eta jada ikastola ez lukete sortuko, zonaldean ez baitago bi zentroei eusteko adina haur. Aldiz, behin ikastola sortu ondoren jartzen bada D eredu publikoa, bi zentroek elkarbizitzeara posible dela deritzote, “bi eskaintza oso ezberdin lirategi keelako”.

Egun, lekubila

Ikastola jartzeko tokirik egokiena Noain omen da, herritarren joeragatik, baina lekua topatzea da problema. Zulueta kontzejuak aukera polita eskainizien, baina herrian ikastolaren aurkako sinadurak biltzen hasi ziren. Roldanen hitzetan, “UPNko emakume integrista batek antolatu zuen dena, eta berez gutxiengoak ziren, baina mediatikoki nahi zutena lortu zuten”. Sinadura horiek juridikoki ez omen zuten nondik heldu ere, sinadurak gutxi zirelako eta asko esku berarekin idatziak, edota sinatu gabeak... Baina hala ere, Zulueta aukerari ezetz esatea erabaki dute, ikastola halako arazorik gabe sortu nahi dutelako: “nahikoa indar inbertitu behar dugu bestela ere, horiekin galtzeko”.

Imarkoingo kontzejuarekin ere mintzatu dira, eta hasieratik oso jarrera irekia agertu omen dute. Roldanek esaldi bakarrean biltzen du Elortzibar Ikastola Batzordearen energia: “zailtasunak ditugu, baina ez dira gaudiezinak”.





Irailean berritua



**V. Euskal Herriko
baliabide
pedagogikoen**

GIDA



**2005-06 eta 2006-07
ikasturtea**

GIDA liburuaz gain, aurten,
euskarri digitalean izango duzu

hh

hkh s



Donostian
Uztailak4,5eta6

Goizez
9:00-14:00

Arratsaldez
Saiñibreak

Ikastaro hauetan oraindik badago lekua

- Neobook
- Power Point
- Aldizkari tailerra: ikastetxeen webguneak Berrian
- Antzerki clown-a
- Jolas kooperatiboak
- Gorputz jarreraren heziketa
- Ahozko hizkuntza
- Disgrafia
- Euskararen erabilera nola sustatu
- Artearen txokoa
- Heriotza heziketan
- Estresa irakaskuntzan
- Ikas-estilo eta estrategiak

hh
hkh s

Matrikula zaituz
Tel: 943 371 408
www.hikhasi.com

m n t z l z u

Un / es
s / y / sc
Euskal Herriko
Unibertsitatea
Hezkuntzaren Teoria
eta Historia Salla